




# **H**aririk

Herri Palestinarraren  
errealitateari buruzko  
elkartasun zertzeladak

*ipar•hegoa*



IKASKETA  
SINDIKALETARAKO  
FUNDAZIOA

# HERRI PALESTINARRAREN ERREALITATEARI BURUZKO ELKARTASUN-OHARRAK

<b>AURKIBIDEA</b> .....	<b>3</b>
<b>0. SARRERA</b> .....	<b>5</b>
<b>1. GAINBEGIRATU HISTORIKO LABURRA</b> .....	<b>7</b>
<b>1.1.- HAINBAT ZIBILIZAZIOREN ARRASTOA</b> .....	<b>7</b>
<b>1.2.- DOKTRINA SIONISTAREN SORRERA ETA BRITAINIARRAREN AGINTALDIA</b> .....	<b>7</b>
<b>1.3.- "AL-NAQBA" EDO HONDAMENDITIK INTIFADETARA (1948-2000)</b> .....	<b>11</b>
<b>2. PALESTINAKO EGUNEROKO ERREALITATEAK</b> .....	<b>15</b>
<b>2.1.- APARTEIDAREN HARRESIA ETA BERAREN ANKERKERIA</b> .....	<b>15</b>
<b>2.2.- KONTROLAK ETA MUGIMENDUEN MURRIZKETAK</b> .....	<b>16</b>
<b>3. PERTSONA IHESLARIAK ETA ITZULTZEKO ESKUBIDEA: GATAZKAREN KONPONBIDEAREN GAKO BAT</b> .....	<b>17</b>
<b>4. PRESO PALESTINARRAK: ERRESISTENTZIA ETA DUINTASUN ADIBIDE</b> .....	<b>19</b>
<b>5. KOLONIA ISRAELDARRAK: SIONISMOAREN AURRERALARIAK</b> .....	<b>21</b>
<b>6. ITOMEN EKONOMIKOA: BESTE SUNTSIPEN-ESTRATEGIA BAT</b> .....	<b>23</b>
<b>7. PALESTINA HAMASEN GARAIPENAREN OSTEAN</b> .....	<b>25</b>
<b>8. BORROKAK JARRAITZEN DU 48KO LURRALDEETAN ETA SIRIAKO GOLANGO GAINETAN</b> .....	<b>29</b>
<b>8.1.- 48KO LURRALDEETAN BIZI DIREN PALESTINARRAREN BORROKA</b> .....	<b>29</b>
<b>8.2.- NEGEV BASAMORTUKO HERRI BEDUINOAK</b> .....	<b>29</b>
<b>8.3.- ERRESISTENTZIA SIRIARRA GOLANGO GAIN OKUPATUETAN</b> .....	<b>30</b>
<b>9. KONPONBIDEA: ESTATU BAT ALA BI?</b> .....	<b>31</b>
<b>9.1.- BI ESTATUEN KONPONBIDEA</b> .....	<b>31</b>
<b>9.2.- ESTATU BAKARRAREN KONPONBIDEA</b> .....	<b>32</b>
<b>10. ISRAELI BOIKOTA! GURE ELKARTASUN-EKARPENA HERRI PALESTINARRAREN BORROKARI</b> .....	<b>34</b>
<b>ERANSKINA.-</b> <b>ELKARRIZKETA AHMED SAADATEKIN -PALESTINAREN ASKAPENERAKO HERRI FRONTEAREN IDAZKARI NAGUSIA-</b> .....	<b>35</b>
<b>GLOSATEGIA</b> .....	<b>38</b>
<b>BIBLIOGRAFIA</b> .....	<b>40</b>



## HITZAURREA

*Intifadaren jendeari,*

*Herri Palestinarrari eta beren askatasunaren alde borrokatzen diren herri guztiei.*



Palestina bisitatu duenarentzat, beti egongo da bisitaren “aurreko aldi” bat eta bisitaren “osteko aldi” bat, zeren bisitaldia biziki hunkigarria baita. Palestinarren eta israeldarren arteko gatazkari buruz hedabideetan egunero ikusten ditugun sufrimenduek eta basakeriek jende ezagunaren izenak eta abizenak hartzen dituzte hortik aurrera; ulergarri egiten zaizu Harresiak eta herri palestinar bakoitzaren irteeran dauden *check point* edo kontrol israeldarrek dakarten umilazioa, ezagutu eta bertatik bertara ikusi duzulako. Suntsitutako nekazaritza-lurrak eta lantegiak ikusi dituzu, eta baita pobrezia-aren muga bizi diren herri palestinarrak ere, era guztietako luxuak erakusten dituzten kolonia sionistek inguratuta. Horrek guztiak bizirik iraungo du Palestinan bidaiatu diren guztien erretinan. Gauza bera gertatzen da Siriako Golango Gainekin, eskualde hori ere Israelek okupatuta baitu gaur egun. Hori guztia ez da inoiz ere ahazten.

Askapenaren 2005eko Brigadan ezagutu genituen palestinarrak -eta baita siriarrak eta beduinoak ere- dira HARITIK hau hainbesteko grinaz lantzera eraman gaituen arrazoi nagusia, haiek ezagutze-ko izandako aukerak eta zorionak bultzatu baikaitu. Jende horiek beren borrokaren eta beren Herriaren borrokaren arrazoiak azaldu zizkiguten, besoak zabalik hartu gintuzten beren etxeetan, beren lokaletan, beren ospitaleetan eta beren eskoletan, hitzekin ezin esplika daitekeen abegikortasunez, eta horren truke gauza bakarra eskatu ziguten *ordain gisa*: beren Herriaren errealitatea eta egoera azaltzea, borrokaren zergatia jakinaraztea.

Gaur egun, Euskal Herrian, Herri palestinarrak bere askatasunaren alde daraman borroka, gatazka horren jatorria eta horren elementu nagusiak aski ezezagunak dira, eta informazioa “apainduta” iristen zaigu askotan, hedabide nagusien desinformazioaren iragazkitik pasatuta, hedabide horiek botere ekonomiko sionistaren mende egoten baitira gehienetan. Beraz, argitalpen honek aurre egin nahi dio “*informazio ofizialari*”, hain komentatuta egon arren hain ezezaguna eta konplexua den gatazka horren gakoak argitzen saiatzeaz batera. Badakigu, ondo jakin ere, Palestina-Israel gatazka-aren errealitatea oso konplexua dela eta berriak ekartzen dituela ia egunero. Gure asmoa ez da izan azken gertaerak xehetasunez aztertzea, baizik eta gatazka horren parametro nagusien ikuspegi bat ematea. Herri palestinarraren izanaz eta beraren askatasun-egarriaz gehiago jakin nahi duenak lan honen amaieran eskaintzen den bibliografia zabalera jo dezake.

Bestalde, argitalpen honek omenaldi moduko bat izan nahi du herritar palestinarentzat -oro har- eta -bereziki- han ezagutu genituen pertsona batzuentzat. Hala, gogoan ditugu Palestinan emandako denbora osoan gurekin izan ziren lagunak (Aghsan, Seleneh, Tahreeraj, Sumoud, Sady Samer eta Wedia, 2005etik aurrera bi aldiz atxilotua eta espetxeratua); Ahmed Saadat, PAHFko Idazkari Nagusia eta parlamentari palestinarra, gaur egun Israelen espetxeratua; Hasan Yousef, Hamaseko parlamentaria, 2005ean espetxeratua, brigadako kideekin egon eta egun batzuetara. Víctor Batarseh, Belengo alkatea, berotasunez hartu baikintuen. Azken batean, gogoan ditugu han ezagutu genituen eta besoak zabalik hartu gintuzten pertsona guztiak, abegikortasuna eta adiskidetasuna zer diren ederki erakutsi ziguten-eta.

Halaber, gogoratu eta omenaldi apal eta sakona eskaini nahi diet Ahmed Yiyousi eta Bashar Kahnini martiri palestinarrei, armada sionistak Nabalusen hil baitzituen 2005eko abenduan. Zoriona izan zen haiek ezagutzea.

Ezin amaitu dezaket hitzaurre hau jende askori gauza asko eskertu gabe: eskerrak Komite Internazionalisten Lidón Sorianori, lan honetako kapitulu bat egin duelako (“Palestina Hamasen

garaipenaren ondoren”) eta nire testu batzuk osatu eta zuzendu dituelako; eskerrak Ahmad Maslamani doktoreari, preso politiko ohia eta ezker palestinarraren militante erreferentziala, lan honetako sarrera idatzi duelako; eskerrak Askapenaren 2005eko Brigadako kideei. Halaber, eskerrak ematen dizkiet Askapenari, Komite Internazionalistei eta “Israeli Boikota! Euskal Ekimenari”, kausa palestinarraren alde egiten ari diren elkartasun internazionalistako lanagatik, eta IPAR HEGOA Fundazioari, HARTIK hau argitaratzeagatik eta hedatzeagatik. Argitalpenaren asmoa da beste aurre-rapauso txiki bat ematea euskal herria eta herri palestinarra elkarren artean ezagutzeko eta elkarrengana hurbiltzeko, biak beren askatasunaren alde borrokatzen ari baitira.

*IGOR URRUTIKOETXEA*  
*Euskal Herria. 2006ko Azaroa*

*Gizakientzat, hiltzea edo ideal noble bat  
eskuratzea ez da garrantzitsuena.  
Benetan garrantzitsua dena da ideal noble bat  
aurkitzea eta hil aurretik beraren alde borrokatzea.*



## **O. SARRERA<sup>(1)</sup>**

Egun hauetan, aro berri baten hasiera bizi dugu, batez ere Israelek Libanoren kontra egindako eraso basatiaren ostean eta Gazak eta Zisjordanian (Palestinako lurralde okupatuak) etengabe pairatzen dituzten erasoen ondoren. Erdialdeko Ekialdean -Irak okupatua barne sartuta- ezarritako ordena ez da berdina izango okupazioaren krimen horien guztien ostean. Osoko segurtasunaren teoriak eta gatazkak armaden bidez eta arma adimentsuen bidez konpondu ahal direla dioen teoriak porrot egin dute.

Suntsipena eta heriotza gorabehera, jende zapalduaren kontrako erasoak gorabehera -batez ere palestinarren kontrakoak-, gertaerek eta emaitzek agerian utzi dituzte, berriz ere, Erdialdeko Ekialdeko gatazkaz egindako irakurketa politiko ustela eta gatazka hori konpontzeko erabilitako estrategia okerrak, batez ere Palestina-Israel gatazkaren kasuan.

Mendebaldearen logika politikoaren sinplekeria mundua gidatzeko erabili nahi duen moduan islatzen da, hau da, mundua indar hutsa erabiliz eta nazioen arteko gerrak piztuz gidatzeko nahian, bere demokrazia kontzeptua bera ere indarraren bidez ezartzeraino. Ilusio horiek guztiak porrot egin zuten (batez ere *segurtasuna-bakea* ekuazioak) administrazio iparramerikarraren eta okupazio israeldarraren harrokeriagatik, tiraniagatik eta zapalkuntzagatik herri askok pairatzen dituzten umilazio, okupazio eta esklabotasunaren eraginez.

Okupazio israeldarrari jadanik iritsi zaio bere helburuak baztertzeko garaia, eta Israelek bertan behera utzi behar du honezkero bere eskualdean jokatzeko duen rola, hau da, israeldar gehienek interesa beste edozein asmoren gainetik jartzeko garaia iritsi zaio. Hori azterlan serio eta arrazional batez lortu liteke, hots, Erdialdeko Ekialdeko gatazkarentzat konponbide bidezko eta oso bat bilatuz, sistemaren kirtenkeriatik urrunduta.

Israelgo agintean egon diren gobernuek alferrikako desio bat sartu nahi izan diete israeldarrei buruan, alegia, Israel superpotentzia bat bihurtzeko desioa; ideia hori, baina, baztertuta geratu beharko litzateke. Beste alde batetik, nazioarteko komunitateari garaia iritsi zaio ezintasun lotsagabe horren kateak apurtzeko, ez badu izan nahi politika amerikar-israeldarraren morroi. Erdialdeko Ekialdeko egoeraren aurrean erakutsitako jarrera negatibo horrek bere zilegitasun moral eta humanoa kendu dio nazioarteko komunitateari.

Okupazio israeldarraren izaera kolonialak ez du onartzen beste herriaren existentzia eta fisikoki deserriratu nahi du, Iparramerikako herri indioekin egin zen moduan, bere lurretatik kanporatuz, eta, hala, legearen esparrutik kanpo eraman nahi du "bestea", bere irizpidea eta bere legeak ezarritik. Halaber, uko egiten dio okupatzailearen eta okupatuaren arteko harremana legezkotasunaren esparruaren eta nazioarteko akordioaren baitan jartzeari.

---

<sup>(1)</sup> Sarreraren egilea Ahmad Maslamani doktorea da, "Health Work Committees" (Palestinako Osasun Batzordeak) erakundearen Zuzendari Nagusia, PNGOko (Palestinako Gobernu Kanpoko Erakundeak) Zuzendaritza Batzordeko Kidea, Harresiaren kontrako "Stop the Wall" Kanpainaren Zuzendaritza Batzordeko Kidea. Preso politiko ohia. Palestina, 2006-11-1a.

Horregatik, ez da kasualitatea Israelek uko egin izana Genevako IV. Konbentzioa herri palestinar okupatuetan aplikatzeari; ildo beretik, Israelek ez du inolako konpromisorik hartu nazioarteko estandarrekin edo lege humanitarioarekin.

Nazioarteko zuzenbidearen urraketa batzuek Nazio Batuen eta nazioarteko erakunde batzuen salaketa izan dute, baina, zoritxarrez, ez da inolako zigor-neurririk ezarri Israelen kontra, ez beraren gerra-krimenengatik eta ezta nazioarteko legearen printzipioak eta giza eskubideak urratzeagatik ere -herri Palestinarrari eta nazioarteko legea gatazka horretan aplikatzeari dagokionez-. Adibide moduan aipatu daiteke Hagako Nazioarteko Justizia Auzitegiak apartheidaren harresi arrazistari emandako iritzia, zeren Israelek ez baitu aholku-iritzi hori orain arte kontuan hartu.

Palestinaren historia askatasunaren, giza eskubideen eta ametsen historia da. Askatasuna ematen duen eta eskubide sozial eta ekonomikoak babestu eta sustatzen dituen etxe baten ametsa da. Injustiziaren kateak, alanbradak, kontrol militarrek eta apartheidaren harresi arrazista apurtzeko herri palestinarrek duen beharra betetzen duen ametsa da. Munduan askatasuna maite duten guztiek bezala, herri palestinarren ametsa da mundu libre baten parte hartzea eta bere ekarpena egitea, justiziaren, berdintasunaren eta giza balioen gaietan, zapalketatik eta tiraniatik urrun.

Horrenbestez, nazioarteko komunitatea eta Europako gizarte mugimenduak lehenbailehen mugitu behar dira okupazioaren mende bizi den jendeari ezarri zaion lotsa- eta injustizia-hesia hausteko eta kausa palestinarra bizkortzeko, berau munduko kausa justu eta humanoenetako bat baita. Hori guztia okupazio israeldarraren kontrako zigor-neurriak ezarriz lor daiteke, hala nola boikota eginez, Israelen urraketen salatuz eta hainbat motatako presio-neurriak eta sentsibilizazio-jarduerak eginez, okupazioaren amaiera ekar dezaketen emaitza praktikoak lortu ahal izateko.

Ibili beharreko bidea gogorra izan arren, gure herria prest dago bide hori jende solidario guztiarekin egiteko, Estatu palestinarra lortzeko ametsa betetzeko, tirania eta herrien mendetasuna ezabatzen laguntzeko, nazioak itotzen dituen globalizazio neoliberal hiltzailearen ondorioei aurre egiteko eta, era horretan, justizian, demokrazian eta giza eskubideetan oinarritutako mundu libre bat sortzeko.

# 1. GAINBEGIRATU HISTORIKO LABURRA

## 1.1.- HAINBAT ZIBILIZAZIOREN ARRASTOA

Palestina historikoan -hots, Israel izenez ezagutzen den lurraldean, Gazan eta Zisjordanian- gaur egun gertatzen den gatazka politikoa hobeto ulertzeko, beharrezkoa da aurrena historiaren tunelean murgiltzea.

Antzina Kanaan deitzen zitzaion 27.000 Km<sup>2</sup>ko lurralde horretako lehenengo biztanleak orain dela 50.000 urtekoak dira, gutxienez. Palestina Erdialdeko Ekialdean dago, leku estrategiko batean, eta neurri aldetik txikia izan arren oso garrantzitsua izan da beti alor komertzial, politiko eta erlijiosoan.

Palestinako enklabe, hiri eta leku asko gune santuak dira hiru erlijio monoteista garrantzitsuenentzat, hots, Islam, Judaismo eta Kristautasunarentzat. Palestinako hiriburua -Jerusalem- da, nonbait, horren adibide paradigmakoena, baina inola ere ez bakarra: Belen, Jeriko, Hebron eta beste batzuk ere esanahi erlijioso handiko lekuak dira.

Gainera, historian izandako zibilizazio garrantzitsuenek beren arrastoa utzi dute ingurune horretan, zeren garai batean edo bestean Palestina okupatu baitzuten, batzuetan aldi berean. Hala, mendez mende, beste batzuen artean herri hauek hartu zuten Palestina beren kontrolpean: Egiptoarrek (gutxi gorabehera K.a. 2800-1200), Filistiarrek (gutxi gorabehera K.a. 1200-1000) -haien garaian hartu zuen lurralde horrek Filistia (Palestina) izena, Kanaanen ordez-, Hebrearrek (gutxi gorabehera K.a. 1250 - K.o. 70), Pertsiarrek (K.a. IV. mendea - K.a. III. mendea), Greziarrek eta Hasmonearrek (K.a. 332 - K.a. 63) eta Erromatarrek, K.a. 63. urtetik aurrera; azken horiek K.o. 637. urtera arte jarraitu zuten Palestina gobernatzen, hau da, Bizantzioko Inperioaren gainbehera gertu egon zen arte.

Orduan hasi zen arabiarren garaia, 1095. urtera arte -gutxi gorabehera-, eta horren ostean Gurutzaden garaia, 1250era arte. Harrezkero, aurrena Mamelukoek (1250-1516) eta hurrena Otomandarrek (1516-1917) hartu zuten Palestina historikoaren kontrola; azkenik, 1922tik 1948ra, "agintaldi britainiarren" garaia etorri zen.

Hain zuzen ere, 1917tik 1948ra doan garaia eta doktrina sionista joera politiko moduan sortu izana - 1896an, Theodor Herzl-en eskutik- funtsezko faktoreak dira judu sionistek Palestina zergatik okupatu zuten ulertzeko.

## 1.2.- DOKTRINA SIONISTAREN SORRERA ETA BRITAINIARREN AGINTALDIA

Aurrekari batzuk baziren ere, normalean onartu ohi da sionismoaren bertsio modernoa 1896an sortu zela, Theodor Herzl judu austrohungariarrak "Estatu judua" izeneko liburua argitaratu zuenean. Izan ere, liburu horretan Estatu juduaren sorrera errebindikatu zuen, eta horixe da, hain zuzen ere, sionismoaren izanaren arrazoia eta helburu nagusia. Aldi berean, 1897an, munduko lehenengo batzar sionista egin zen, Basilean.

Bitxia bada ere, eta jende askok ez dakien arren, lehenengo unean beste kokapen batzuk egon ziren aztergai Estatu juduarentzat. Hala, Argentinako Patagonian jartzeko aukera aztertu zen, lurralde horren zati handi bat biztanlerik gabe zegoelako. Halaber, Egiptoko Sinai eskualdea eta Afrikako erdigunea ere aztergai egon ziren, baina aukerako kokapen horiek baztertuta geratu ziren, hainbat arrazoi zirela medio -batez ere arrazoi politikoak-.



Theodor Herzl 1904an hil zen, eta harrezkero Haim Weizsmannek hartuko zuen beraren lekua sionismoaren buruzagitzan. Weizsmann britainiar nazionalizatu zen 1917an, eta Britainia Handiaren adostasunarekin Palestina aukeratu zuen Estatu judua etorkizunean kokatzeko lekua izan zedin. Horretarako, sionismoak esaldi famatu eta faltsu bat aukeratu zuen: "*herririk gabeko lurralde bat lurralderik gabeko herri batentzat*". Esaldi horren bidez historia faltsutzen da, zeren gezur bat finkatzen hasten baita, alegia, Palestina herririk gabeko leku bat zela eta norbaitek okupatzearen zain zegoela. Gehienez jota, doktrina sionistaren arabera, bertan pertsona nomada bakar batzuk bizi ziren, beste herri arabiar askotara joan zitezkeenak.

Argudio faltsu horren garrantzia begi-bistakoa da gaur egun, zeren Israelgo eskoletan gezur historiko hori irakasten baitzaie haurrei. Orobat, agerikoa da ideia horren helburu arrazista; izan ere, bai ultraeskuin israeldarrak eta bai biztanleriaren beste sektore garrantzitsu batzuek eta agintari batzuek jarraitzen dute esaten palestinarrek bizitzera joan beharko luketela Israel inguratzen duten herri arabiarretara, Israel "*juduentzat soilik*" utzita.

Sionismoak badu desberdintasun bat gainerako mugimendu kolonialen aldean, hots, "*ohiko kolonialismoek*" ez bezala, bere asmo bakarra ez zen herri palestinarra esplotatzea eta haren lepotik aberastea, baizik eta baita beraren lurraldetik kanporatzea ere, beste Estatu arabiar batzuetan eta mundu osoan sakabanatuz. Hau da, asmoa da Palestinako jatorrizko herriaren ordeztzea "*herri judua*" jartzea, palestinarren bizileku historikoa izan den lurraldearen kontrolaz jabetuta.

Nolanahi ere, "*herririk gabeko lurralde bat lurralderik gabeko herri batentzat*" esaldiaren atzean ezkututzen den gezur historikoaz gain, sionismoak beste gezur eta errealtate batzuk ere hartu ditu oinarritzat bere diskurtsoa mamitzeko, eta gero etengabe errepikatu izan ditu. Hona hemen aipagarrienak:

- Israel Erdialdeko Ekialdeko *demokrazia bakarra* dela esaten da. Bada, oso eztabaidagarria da bakoitzak *demokraziatzat* zer hartzen duen, zeren hitz hori alderdikieriaz erabiltzen baitute herriaren borondatea errespetatzen ez dutela maiz erakusten duten hainbatek. Hala, hain demokratak baldin badira, zergatik ez ote dute errespetatzen Israelgo gobernuak, AEBek eta EBk herri palestinarren hauteskundeetan erabakitakoa, alegia, gobernu Hamasi ematea? Garbi dagoena da Estatu sionista israeldarrak ez dituela errespetatzen ez giza eskubideak, ez eskubide zibil eta politikoa, eta ezta arrazari edo erlijioari lotutako betekizun jakin batzuk betetzen ez dituzten pertsonen askatasun zibiko ugari ere; izan ere, Estatu israeldarrak tortura erabiltzen du egunero, eta bere agindu militarretan onartzen du "edozein metodo erabil daitekeela, baldin eta pertsona atxilotuengatik informazioa eskuratzeko balio badu", torturaren erabilerari marko legal bat emanaz, eta gainera auzitegiez kanpoko exekuzioak gauzatzen ditu sistematikoki. Aipatutako bazterketa hori ez da Golango palestinar eta siriarrekin soilik gertatzen, baizik eta baita "*arabiar-israeldar*" deritzen pertsonen kasuan ere; pertsona arabiar horiek (palestinarrak eta beduinoak) "*nazionalitate israeldarra*" dute formalki onartuta, geroago azalduko dugun moduan. Estatu sionista israeldarra "*demokraziatzat*" hartzeak ez du inolako oinarririk, hau da, Hegoafrikan izandako apartheid erregimena demokraziatzat hartzea bezain zentzugabea da.
- Gatazka hau erlijioen arteko gatazka moduan aurkeztu nahi da, hau da, juduen eta musulmanen arteko gatazka moduan, baina Palestina eta Israel aurrez aurre jartzen dituen gatazka ez da erlijiosoa, politikoa baizik. Ez dugu ahaztu behar palestinarren artean badirela biztanle talde kristauak (batez ere Belen, Ramala, Jerusalem, Nazareth, Haifa eta beste herri batzuetan), eta baita laikoak ere. Haien sinesmen erlijiosoak, ideologia, sexua edo adina zeinahi direlarik ere, Palestinako herritar guztiek pairatzen dituzte okupazio sionistaren berezko urraketak. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar Israelek Siriako zati bat duela okupatuta (Golango Gainak) eta Libanoren kontrako gerra hasi zuela, horko biztanleen %40 kristaua izan arren. Hortaz, Erdialdeko Ekialdeko egoerak eta Estatu sionista israeldarra bere inguruko herri guztien kontra jartzen duen enfrontamenduak jatorri politikoa dute, ez erlijiosoa.

Halaber, ez da egia sionismoa eta Israelgo Estatua Holokausto naziaren biktimen oinordeko moralak direla. Milioika pertsona errugaberen hilketa masibo eta antolatua -gehienak erlijio judukoak- Gizateriaren kontrako krimen bat da, pertsona guztien erabateko gaitzespena merezi duena. Hala eta guztiz ere, sionismoak ez lituzke erabili behar genozidio baten biktima izandako pertsona errugabe horien memoria eta drama bere politika justifikatzeko, hots, Palestina okupatzeko politika eta hor gauzatzen dituen krimenak justifikatzeko. Ezinbestekoa da bi errealitate horiek gaitzestea eta biktimei elkartasuna adieraztea, bi kasuetan, hau da; nazismoaren biktimei eta sionismoaren biktimei.

Doktrina sionista sortu zenez geroztik, XX. mendearen hasieran hasi ziren juduen lehenengo migrazio masiboak Palestinara, beren *"prometatutako lur"* partikularren bila.

1916an, *Sykes-Picot Akordioaren* bidez, Britainia Handiak eta Frantziak Inperio Otomandar izandakoaren lurak banatu zituzten ezkutuan, Palestina britainiarren esku utziz. Horren eraginez, eta sionistek Britainia Handiko alderdi politiko nagusiekin zuten itunak bultzatuta, Kanpo Arazoetako Ministroak *Balfour Adierazpena* prestatu zuen 1917-11-2an, honako hau hitzez hitz esaten: *"Bere Maiestatearen Gobernuak egokitzat jotzen du herri juduarentzako etxe nazional bat ezartzea Palestinan, eta, ahal duen neurrian, ahaleginak egingo ditu helburu hori erdiesteko; garbi ulertzen da, horri dago-kionez, ez dela egingo Palestinan dauden komunitate ez-juduen Eskubide zibil eta erlijiosoak urratu ditzakeen ezer..."*.

*"Herririk gabeko lurralde bat lurralderik gabeko herri batentzat"* dioen esaldiaren faltsukeria agerian geratzen da adierazpenean bertan, hor hauxe esaten baita: *"ez da egingo Palestinan dauden komunitate ez-juduen Eskubide zibil eta erlijiosoak urratu ditzakeen ezer"*. Beraz, Estatu judua sortzearen aldekoek aitortzen zuten, modu inplizituan, Palestina ez zela biztanlerik gabeko lurralde bat, zeren bertan "komunitate ez-judua" bazirela esaten baitzuten. Are gehiago, garai hartan Palestinan zegoen biztanleria judua biztanleria osoaren %10 baino ez zen, alegia, 60.000 pertsona 600.000 biztanleren artean.

Hala eta guztiz ere, eta "Balfour Adierazpenean" komunitate ez-juduen berezko Eskubideak aipatzen badira ere, Britainia Handiaren benetako asmoa Balfourrek 1919an idatzi zuen memorandumean jasotzen da, hor hauxe esan baitzen: *"...Palestinan ez dugu inolako asmorik oraingo biztanleen nahiak ezagutzera zuzendutako kontsulta-formak abiatzeko"*. Izan ere, Balfourrek berak zioenenez, *"arrazoiarekin edo arrazoirik gabe, ona zein txarra izanik, sionismoa oso errotuta dago oraingo behar eta etorkizuneko itzaropen garrantzitsutan, eta behar eta itzaropen horiek antzinako herria gaur egun okupatzen duten 700.000 arabiarrena baino askoz ere sakonagoak dira"*.

Alemaniak eta Turkiak I. Mundu Gerra galdu ostean Inperio Otomandarra desegin zenean, 1922an, Nazioen Elkarrekin Britainia Handiari eman zion Palestinako *"agintea"*, nahiz eta, izatez, bost urte zeramatzen lurralde hori administratzen. 20ko hamarkadan Palestinara zuzendutako migrazio judu masiboek eta arabiarren lurak erosteko eta/edo desjabetzeko politika sistematikoek arabiarren matxinadak eragin zituzten 1921ean, 1929an, 1933an eta 1936an<sup>2</sup>.

Matxinaden arrazoia hauxe zen: herritar arabiarrek konturatu ziren immigrazio masiboaren eraginez kolonia juduak neurritz kanpo hazten ari zirela, eta ikusi zuten horrek mehatxupean jartzen zuela britainiarren agintetik independizatzeko nahia; horrez gain, kolonoak arabiarren lurren jabetza eskuratzen ari ziren, eta, gainera, sistematikoki uko egiten zioten juduak ez ziren pertsonen lana emateari, eta horrek langabezia eta miseria ekartzen zizkien sionistak iritsi arte nekazaritzan lan egiten zutenei.


---

<sup>2</sup> Horretarako, Fondo Nazional Juduaz baliatu ziren. Izan ere, 1901ean sortutako erakunde horrek Palestinako lurren erosketa finantzatzen zuen.

Kolonia juduek beren armada propioa eratu zuten, "*Haganah*" izenekoa, eta baita beste talde paramilitar batzuk ere, hala nola *Irgun* edo *Stern*. Talde horiek interes arabiar eta britainiarren kontrako erasoak egiten zituzten, bai britainiarrak eta bai arabiarrek beren "*prometatutako lurretik*" kanporatzeko. Testuinguru horretan gauzatutako erasoen artean, Jerusalemgo King David hotelaren zati baten leherketa egon zen, **Menahem Beguin<sup>3</sup> buru zuen** Irgun taldeak jarritako bonbak eraginda. Bertan, 91 pertsona hil ziren, gehienak nazionalitate britainiarrekoak.

1936an, Palestinako biztanleria judua biztanleria osoaren %36 izatera iritsia zen. Dena dela, juduen etorrera masiboa II. Mundu Gerra amaitzean izan zen, holokausto naziaren ostean, zeren garai horretan ehunaka mila judu iritsi baitziren Palestinara.

1947an, britainiarrek ezin zutenez Palestina gobernatu, Nazio Batuek herria bi zatitan banatzea proposatu zuten. **181. Ebazpenaren** bidez, biztanle judutarrei lurraldearen %53 asignatu zitzaizen, lur emankorrenak barne sartuta, biztanleriaren %40 baino gutxiago izan arren. Herri palestinarri, berriz, lurraldearen %47 soilik eman zitzaion, biztanleriaren %60 baino gehiago izan arren. Horren eraginez, herri palestinarrek uko egin zion sionistek ontzat ematen zuten plan hura onartzeari.



<sup>3</sup> **Menahem Beguin (1913-1992)** Israelgo lehen ministroa izan zen 1977tik 1983ra, eta Libano inbaditzeko agindua eman zuen, 1982an, Ariel Sharon Defentsa Ministroa zelarik.

### 1.3.- “AL NAQBA” EDO “HONDAMENDITIK” INTIFADETARA (1948-2000)

1948an, Britainia Handiak bere agintaldia bukatutzat eman zuenean, eta Israelgo Estatuak maiatzaren 14an aldarrikatu ondoren, eta baita lehenago ere, aipatutako 181. ebazpena 1947an onartu zenean, sionismoak politika suntsitzailerik bat abiatu zuen gaur egun Israel deitzen zaion lurraldearen barnean; hala, ehunaka herririk palestinar hondatu zituen eta hainbat sarraski egin zituen, hala nola Deir Yassin herririkakoa, non 250 zibil hil baitzituen 1948-4-10ean. Horren ondorioa izan zen 750.000 palestinarrek baino gehiagok etxetik ihes egin behar izan zutela eta iheslari bihurtu zirela. Garai horri Al Naqba deitzen dio herri palestinarrek, oraindik ere pairatzen duten Hondamendiaren hasiera izan zelako.

Pertsona batzuek beren bizilekuetatik gertu zeuden inguruetara ihes egin zuten, Israelgo mugen barnean, gerraren ostean itzultzeko itzaropenarekin, edota Gaza eta Zisjordanian. Pertsona horiek “*barneko desplazatuak*” dira, zeren Palestina historikoaren mugen baitan baitaude babestuta. Beste pertsona askok alboko herri arabiarretara ihes egin zuten, eta beste batzuek Amerikara edo Europara. Gaur egun, 4,8 milioi palestinar inguru Palestina historikoan bizi dira (horietatik, 1,2 milioi Israelgo mugen barnean bizi diren “arabiar-israeldarrak” dira, 2,3 milioi Zisjordanian bizi dira eta 1,3 milioi Gazan), eta 5 milioi baino gehiago mundu osoan daude sakabanatuta, gehienak herri arabiarretan.

Modu paraleloan, Estatu sionistak bi lege onartu zituen 1950ean, ia aldi berean, lur eta jabetza palestinarren lapurreta eta garbiketa etnikoa juridikoki bideratzeko. Era horretan, praxian, biztanleria sionistak biztanleria palestinarra ordezkatzeko zuen. Hala, alde batetik, “**Absenteen Jabetzei buruzko Legea**” onartu zen; beraren arabera, gerraren garaian atzerrira edo Palestinako beste eskualde batzuetara alde egin zutenek beren lurak eta jabetzak galduko zituzten. Beste alde batetik, “*Itzuleraren Legeak*” Israelen finkatzeko eta bizitzeko eskubidea aitortzen zien mundu osoko pertsona juduei. Gainera, Jerusalem Israelen hiriburua izendatu zen, palestinarren hiriburua izan arren.

1964an, **Palestina Askatzeko Erakundea (OLP)** sortu zen, eta 1969an Yasser Arafat izendatu zuten erakundearen presidentea izateko.

Hiru urte geroago, “**Sei Egunetako Gerran**”, Israeliek Gaza, Zisjordania, Egiptoko Sinai eskualdea eta Golango Gainak okupatu zituen. Berriz ere, ehunaka herri suntsituta geratu ziren eta ia 400.000 pertsona palestinarrek erbestera joan behar izan zuten, batzuek bigarren aldiz. **NBEren 242. ebazpena** 1967ren aurreko mugetara itzultzeko eskatu zion Israeli, baina Estatu sionistak ez zuen hori onartu. Gainera, Ekialdeko Jerusalem anexionatu zuen.

70eko hamarkadan, Israel kolonia edo kokagune juduak sortzen hasi zen Gazan, Zisjordanian, Ekialdeko Jerusalem eta Golango Gainetan, “*izatezko errealtateak*” sortzeko asmoz, hots, etorkizunean zaila izan zedin kolonoak lur horietatik erretiratzea, eta, beraz, Israeliek gune horiek izatez anexionatu zituzten.

1973an, “**Ramadanaren edo Jom Kippur-aren Gerran**”<sup>4</sup>, Egiptok eta Siriak ustekabean eta aldi berean eraso zituen Israeli. Egiptok Sinai eskualdearen zati bat berreskuratu zuen, baina Siriak ez zuen gauza bera lortu Golango Gainekin. Nolanahi ere, Israel ez zen Sinaitik guztiz erretiratuko 1989ra arte.

Beste alde batetik, 1982ko ekainean, PAE Libanoko hegoaldeko kanporatzeko xedez, Israeliek herri hori inbaditu zuen eta Beirutaraino iritsi zen.



<sup>4</sup> Izena aldatu egiten da bandoaren arabera: Ramadan musulmanentzat, Yom Kippur juduentzat.

1987ko abenduaren 8an, Jabaliyako iheslari-zelaiko lau palestinarren heriotzak *Lehenengo Intifada*<sup>5</sup> piztu zuen, herri palestinarrek ezin baitzuen gehiago jasan haren kontra etengabe zuzentzen ziren erasoak -hilketak, lur-lapurretak, kolonia sionisten hedapena eta era guztietako diskriminazioak-; *Intifada* desobedientzia zibileko mugimendu bat da, herriarengan sakon errotua, PAEetik edo alderdi politikoetatik haratago. Une horretatik aurrera, kolonoek palestinarren kontra zuzendutako erasoak, atxiloketak, deportazioak, tortura, hilketak eta etxe palestinarren eraispena eguneroko ogia bilakatuko ziren.

Madrilgo Konferentzia (1991) egin ostean, 1993an "*Osloko Elkarrizketak*" egin ziren Israelgo Gobernuaren eta PAEren artean, eta ekimen horrek "*Osloko Akordioak*" ekarriko zituen gerora. Akordio horietan ezarri zenez, Israel urratsez urrats erretiratuko zen Gaza eta Zisjordaniatik, Gaza eta Jerikorekin hasiz; orobat, Palestinako Aginte Nazionala eratuko zen, lurralde horien gobernuaz arduratzeko. Gai korapilatsuenak -Jerusalemen "estatusa", koloniak erabat desegitea eta iheslari palestinarren egoera-, berriz, geroagoko fase baterako utzi ziren.

Akordio horietako beste ondorio bat izan zen Yasser Arafaten PAEk existitzeko eskubidea onartu ziola Israeli; Estatu israeldarrak, aldiz, ez ziren onartu palestinarrei beren Estatu eratzeko eskubidea, ezta Palestina historikoaren %22an ere -Gaza eta Zisjordania-. Arrazoi horren eraginez, Palestinako ezkerreko alderdi politikoek -Palestinaren Askapenerako Herri Fronteak, adibidez-, alderdi islamiarrek -Hamis eta Jihad- eta biztanleriaren sektore zabal batzuek klaukiazioztat hartu zituzten akordio horiek. Dena dela, aipatutako arrazoi horrez gain baziren beste batzuk, alegia:

Akordioetan uko egiten zitzaion, berez, Israelek 1948an okupatu zituen lurraldeak berreskuratzeari, hau da, gaur egun Israel Estatu moduan ezagutzen dugun eskualdea berreskuratzeari. Herritar palestinar askoren ustez, hori Palestinaren zatiketa eta desegituraketa onartzea zen. Gainera, Gaza eta Zisjordania 3 eremu administratibotan zatitzen ziren: "*A Eremua*", Gazarekin eta Zisjordaniako hiri nagusiekin, PANen kontrolaren mende geratzen zen erabat; "*B Eremuan*", berriz, Zisjordaniako herriak PANen kontrol zibilaren mende geratzen ziren, eta segurtasuna israeldarrek eta PANek konpartituko zuten, proportzio berdinetan; azkenik, "*C Eremuan*" kolonia ugari zeuden, israeldarren kontrolpean, eta palestinarren biztanleria dentsitate txikikoa zen.

Horren ondorioa zen Gazan eta Zisjordanian "*Bantustanak*"<sup>6</sup> sortzen zirela, eskualde horri *gruyère gazta* baten itxura emanez, hau da, eskualdea elkarren artean jarraitasunik ez zuten gunetan zatitzen zen, israeldarren kontrolpean zeuden hainbat *uharterekin* eta postu militar israeldarrez josita.

Gainera, akordioek bidea ematen zioten Israeli mugak, aire-espazioa eta baliabide



<sup>5</sup> Matxinada, altxaldia.

<sup>6</sup> Elkarren artean loturarik ez duten ghettoak. Bantustan izan zen Hegoafrikako erregimen zuriak ghettoei eman zien izena. Bertan, biztanleria beltza entzerrata bizi zen, "auzoetan" bezala.

hidrikoak -oso garrantzitsuak munduaren ingurune horretan- kontrolatzen jarraitzeko. 2000. urtean, PANek Gazaren %65 eta Zisjordaniaren %17 soilik kontrolatzen zuen.

Ondasunen eta pertsonen mugimendu-askatasunak murrizketa berdinak jarraitu zuen izaten, bai Gaza eta Zisjordania eta bai bi eremu horien artean. Negoziazioen garaian, kolonia sionistek beren *segurtasun eremuak* eta beren erabilera eskusiboko errepideak hedatzen jarraitu zuten. Palestinarren atxilotetak, torturak eta hilketak ez ziren gelditu, ez militanteen kontra zuzendutakoak eta ezta zibilen kontrakoak ere, eta preso politikoen egoerak ere bere horretan jarraitu zuten.

Horrek guztiak, Yasser Arafaten PANen sektore batzuen ustelkeria gero eta handiagoarekin batera, indarrak gabe utzi zituen errealitatean *Osloko Akordioak*, eta, ondorioz, **“Bigarren Intifada”** piztu zuen. Hasierako eguna 2000ko irailaren 28a izan zela esan ohi da; egun horretan, Likud alderdi ultraeskuindarraren buruzagi Ariel Sharon<sup>7</sup> Jerusalemgo meskiten zabalgunean sartu zen -leku hori sakratua da milaka musulmanentzat-, polizia inguratuta, leku hori eta Jerusalem osoa pertsona juduentzat soilik izan behar zela errebindikatu, probokazio garbiko ekintza batean. Palestinarren etsipena lehertu egin zen berriz.

Dena dela, Bigarren Intifada horretan, lehenengoan ez bezala -lehenengoak ustekabe harrapatu zuen mundu osoa, eta baita alderdi politiko palestinarrek ere-, alderdi politikoen lidergo sendoagoa agertu zuten. Halaber, bigarren Intifada horrek Hamas indartu zuen Al Fatahen polo alternatibo gisa, geroago aztertuko dugun moduan<sup>8</sup>.

2002ko ekainean, Israel “Apartheidaren Harresia” eraikitzen hasi zen, eta gaur egun harresi horrek Zisjordaniako zati handi bat inguratzen du; Gaza, bestalde, alanbrada elektrifikatu eta harresi-tartez itxita dago.

2005eko udan, Israelgo Estatuak bere historiako propaganda-operazio handienetako bat gauzatu zuen, zeren Gazako kolonoak handik atera eta Zisjordaniako beste eremu batzuetara eramanez baitzuten. Hori izan zen, Mendebaldeko *hedabideen* hitzetan, *“Gazako kolonoen hustuketa”*. Telebista eta egunkarietan behin eta berriz errepikatutako irudietan kolono *gizajo batzuk* beren etxeetatik nola kanporatzen zituzten ikus zitekeen. Inoiz ere esplikatuta ez zena hauxe da:

- 8.000 kolono sionista horiek pizgarri ekonomiko mardulak jaso zituzten han bizitzen jartzeko, beren etxeak barne, eta 20.000 militarrez zainduta bizi ziren une guztietan. Beraz, Gazako *hustuketa* ez zen izan sionisten borondate oneko ekintza bat, baizik eta biztanle palestinarrek kokagune horien kontra etengabe zuzentzen zituzten erasoen ondorio, eta, halaber, koloniak mantentzeko Israelgo Estatuari zekarkion kostu politiko, sozial eta -batez ere- ekonomikoaren ondorio.
- Gaza munduan biztanle-dentsitate handiena duten lekuetako bat da; izan ere, 365 km<sup>2</sup>etan -Palestina historikoaren %5aren adina- 1.300.000 palestinar bizi dira pilatuta.
- Kolonoak Gazatik irten zirenean, eskualde hori alanbrada elektrifikatu eta harresi-zatiz inguratuta zegoen Erez eta Rafah eremuetan. Orduan ere bazen aire zabaleko espetxe handi bat, zeren irteera bakarra Erezko kontrol-postua baitzen. Hilabete batzuk geroago, Rafahko kontrol-postua ere ireki zen, Egiptoko mugan. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da puntu horietatik pasat-



<sup>7</sup> Sabra eta Chatilan -Beirtueko kanpoaldean kokatutako iheslari-zelai palestinarrek- 1982ko udan egindako sarraskiaren arduradun politikoa. Israelgo armadaren laguntzarekin -Ariel Sharon Defentsa Ministroa zela-, Libanoko falange kristauak 3.000 pertsona hil zituen bertan, gehienak emakumeak eta haurrak, bi egun zehar iraun zuen masakre batean.

<sup>8</sup> Ikus 7. Kapituluak: “Palestina Hamasen garaipenaren ostean”.

zako aukera guztiz aleatorioa dela, eta, hala, palestinarrak militar israeldarrek une bakoi-tzean erabakitzen dutenaren mende daude beti, haiek erabakitzen baitute nor eta noiz pasatu ahal den, eta nor ezin den pasatu.

- Israelek Gazako aire-espazioa, itsasoa eta ura kontrolatzen jarraitzen du, eta, beraz, inongo soberania ekonomikorik gabeko lurraldea da.

- Gazako koloniak husten zituen bitartean, Israelek koloniak eraikitzen jarraitzen zuen Zisjordanian eta Jerusalemen. Egun horietan han egon ginenok zuzenean ikusi eta egiaztatu ahal izan genuen hori. Hala, adibidez, Gazatik kanporatutako kolono batzuei bizilekua eman zitzaien Zisjordaniako Hebron hirian. Europako eta Euskal Herriko hedabideek -txalotu beharreko salbuespenen bat kenduta- ez zuten inoiz ere errealitate hori aipatu. Ezjakintasunagatik izango ote zen, ala baziren beste interes ezkutu batzuk tartean?

Azkenik, laburpen historiko hau bukatzeko, aipatzekoa da Israelgo Estatuak errepresio-kanpaina basati bat abiatu duela 2006ko udan Gazan eta Zisjordanian; kanpaina horretan 400 palestinarrak hil dira, gehienak zibilak, eta susmatzekoa da Genevako Konbentzioak debekatutako armak erabili direla.

Horrez gain, nazioarteko legea berriz ere hautsiz, Israelek Libano hondatu du 2006ko udan: 1.200 zibil baino gehiago hil ditu eta 5.000tik gora zauritu, herri txiki horren azpiegitura guztiak suntsitu ditu eta bahimendu genozida bat ezarri dio.

Gaza eta Libanori modu hain basatian erasotzeko aitzakia hiru soldadu israeldar harrapatu izana da. Soldadu horiek harrapatu izanari emandako erantzuna erabat neurritz kanpoko eta ilegala izan da. Israelek milaka zibilen hilketak masiboarekin erantzun du, eta horrek garbi adierazten du Israelgo gobernuak aspalditik zituela prestatuta eraso horiek.

## 2. PALESTINAKO EGUNEROKO ERREALITATEAK

Herri palestinarrak egunero pairatzen duen errealitatearen ezaugarri nagusiak okupazioa eta errepresioa dira; horren eraginez, edozein pertsona palestinarraren *egun arruntaz* hitz egitean, edozer esan daiteke *egun arrunta* dela izan ezik. Umilazioa, mugimenduen murrizketa eta herri palestinarrak egunez egun pairatzen duen errepresioa brigadista moduan egiaztatu ahal izan genuen errealitate bat da.



### 2.1.- APARTHEIDAREN HARRESIA ETA BERAREN ANKERKERIA



2002ko ekainean, Estatu sionista "Apartheidaren harresia" eraikitzen hasi zen; atentatu terroristak saihestea aitzakia merketzat hartuta, harresi horren asmoa da herri palestinarra aire zabaleko espetxe handi batean ixtea.

Harresi hori nekazari palestinarren lurra poliki-poliki lapurtzeko eraikitzen da. Izan ere,

harresia eraikitzeko 173.000 olibondo baino gehiago erauzi dira honezkerok, palestinarren bizigai nagusia izan arren. Gainera, *Lotsaren harresi* hori eraikitzeko erabili diren lurrak eta haien inguru-neak *segurtasun eremu* deklaratu ditu Israelek, eta, beraz, zuzenean gestionatzen ditu.

Luzeran gutxi gorabehera 700 kilometro eta altueran 8 metro dituen harresi hori herri palestinarrak pairatzen duen diskriminazio egoeraren adierazpide basatiena da. Hala, arrazismoa "omentzen" duen harresi horren bitartez, Israelek lurrak, herriak eta kaleak zatitu ditu Palestinan. Harresiaren ondorioz, iraganean kale berean, etxalde berean edo 5 minutuko distantziara bizi ziren palestinarrek hainbat kilometro egin behar dituzte orain leku berberera iristeko, hau da, orain arte minutu gutxioko distantziara zeuden lekuetara iristeko. Pertsona batzuk beren familiarengandik eta betiko lagunengandik urrun geratu dira, lehen 100 metrora baino bizi ez baziren ere.

Harresiaren eraikuntza eraso larria da herritar palestinarren mugimendu askatasunaren kontra, eta, gainera, Palestinaren garapen ekonomikoa eragozten du *de facto*; izan ere, lurra, ura eta baliabide naturalak kontrolatu gabe



herri baten aurrerabide ekonomikoa ezin eskuratuzko utopia bat da. Hortaz, Palestina ekonomikoki itotzea da zementuzko pila horren bidez Estatu sionistak bilatzen duen beste helburu bat, nahiz eta, jakina, ez duen aitortu nahi.



## **2.2.- KONTROLAK ETA MUGIMENDUEN MURRIZKETAK**

Harresiak dakarren umilazio hori are okerrago bihurtzen da 67an okupatutako lurraldeetan leku orotan dauden kontrol edo *check point* etengabeen eraginez, Ramalatik Belenera joan ginen egunean egiaztatu ahal izan genuen bezala; autoz egindako ordubeteko ibilaldi horretan bi kontrol aurkitu genituen. Egoera hori hirien eta herrien arteko joan-etorri guzti-guztietan errepikatzen da. Kolono israeldarrak lasai asko pasatzen dira kontrol horietatik, gelditu ere egin gabe; palestinarrek, aldiz, orduak eta orduak eman behar izaten dituzte hor, eguzki galdatan, lanera edo medikuarenera joan behar izan arren. Medikua den lagun palestinar batek 4 eta 5 ordu bitarte behar izaten zituen egunero, bere etxearen eta lan egiten zuen ospitalearen arteko 15 kilometroak kotxez egiteko. Zorigaitzez, hori oso kasu arrunta zen.

Biztanleria palestinar osoak ditu mugimendu murrizketak. Zisjordanian bizi direnak ezin dira Gazara joan, agintari israeldarrek emandako baimen berezia izan ezean, eta Zisjordanian gauza bera gertatzen da. Belenen bizi direnek ez dute askatasunik Ramalara edo Hebronera joateko; sarritan, gainera, palestinar guztiek pasatu behar dituzten kontrolez gain, agintari israeldarrek beren lurraldeko herri batetik bestera joatea debekatzen diete beren-beregi palestinar askori. Eta zer esanik ez nazioarteko joan-etorriez! Israeldarrak nahi duten tokira joan daitezke, nahi dutenean; milaka palestinarrek, aldiz, ezin dute horrelakorik egin, eta azkenean baimena lortzen dutenek galdeketa luze eta gogaikarriak gainditu behar izaten dituzte aduanetan. Alde horretatik, esanguratsua da ikustea nola, Jerusalem bizi diren palestinar batzuk eta 48ko lurraldeetan (oraingo Israelgo Estatu) bizi diren "*arabiar-israeldarrak*" kenduta, gainerako palestinarrek ezin duten bidaiarik egin Tel Aviveko Ben Gurion Aireportutik. Nolanahi ere, paradoxikoa eta bitxia badirudi ere, eta ia absurdua izan arren, Zisjordaniako palestinar batek "zailtasun gutxiago" ditu Parisera joateko -adibidez-, milaka kilometrora egon arren, Gazara joateko baino, azken hori 60 kilometrora egon arren, hori debekatu dagoelako.

Kasu horiek gertaera solteak dira, zerrenda erraldoi eta amaigabe baten adibide konkretuak. Kasu bakoitza desberdina da, baina guztiek dute zerbait komuna: Israelgo Estatu sionistaren oinarrian dauden apartheidia eta arrazakeria. Bien bitartean, nazioarteko komunitateak beste alde batera begiratzen du.

### 3. PERTSONA IHESLARIAK ETA ITZULTZEKO ESKUBIDEA: GATAZKAREN KONPONBIDEAREN GAKO BAT.



Biztanleria palestinarren datu estatistikoak erreparatu gero, agerian geratzen den lehenengo gauza da gaur egun biztanle gehiago bizi direla beren lurraldetik kanpo lurraldearen barruan baino. Horrenbestez, *garbiketa etnikoa* eta biztanleria palestinarra biztanleria juduarekin *ordezteko* politika sionista indarra hartzen ari da urratsez urrats. Horretarako, Estatu sionistak era guztietako teknikak erabili izan ditu, biztanleria palestinarren Giza Eskubideak eta eskubide zibil eta politikoak urratuz: hilketak, deportazioak eta torturak; lurra, ura eta baliabide naturalen lapurreta; ekonomia itotzea eta blokeatzea; lantegiak, eskolak, ospitaleak eta era guztietako azpiegiturak suntsitzea; herritarren mugimenduak murriztea; eta beste asko.

Gaur egun, munduan bizi diren palestinarren osoko kopurua 10 milioi pertsona da, gutxi gorabehera; horietatik, erdia baino gehixeago Palestina historikotik kanpo bizi da, hau da, oraingo Israelgo estatutik, Gazatik eta Zisjordaniatik kanpo, okupazio sionistaren faseetan (1948, 1967, 1987, 2000...) beren lurretik alde egin behar izan duten iheslarien kanporatzearen eraginez.

Israelgo mugen barruan, 1948an okupatutako lurraldeetan, gaur egun 1,2 milioi palestinar bizi dira, hots, horko biztanleriaren %20. Gazan, berriz, 1,3 milioi palestinar inguru bizi dira, eta Zisjordanian 2,3 milioitik gora. Beraz, Palestina historikoan bizi diren palestinarrek 4,8 milioi dira guztira. Kontuan hartu behar da horietako asko "*barneko iheslariak*" direla, hau da, 1948a edo 1967a baino lehen Palestina historikoaren mugen barnean bizi ziren pertsonak, baina ez gaur egungo herri edo leku berberetan, zeren haien jaioterriak suntsituta izan baitziren, eta, beraz, herriko beste eremu batzuetara joan behar izan zuten. Hala, adibidez, nazionalitate israeldarra inposatuta duten *barneko iheslariak* ezagutu genituen Nazareth hirian (hau da, 48ko lurraldeetan, Israelen barnean), nahiz eta jatorriz Nazarethetik 30 kilometrora zegoen herririka batekoak izan. Haien herria suntsituta geratu zen 1948an, sionisten erasoan ondorioz, eta haren lekuan *Kibbutz*<sup>9</sup> bat jarri zuten. Garai batean herria izandako leku hartatik harri batzuk baino ez dira geratzen orain.

Iheslariak era honetan daude banatuta munduan zehar: 2.800.000 milioi Jordanian bizi dira, 443.000 Sirian, 421.000 Libanon, 63.000 Egipton, 604.000 gainerako herri arabiarretan, 239.000 Estatu Batuetan eta 304.000 Europan eta Latinoamerikan<sup>10</sup>.

Beren egoerari dagokionez, heren bat *pertsona iheslarien* eremuetan bizi da, Gazan, Zisjordanian, Sirian, Libanon eta Jordanian. Kanpamentu horiek behin-behinekoak izan ziren hasieran, baina denboraren poderioz herri bilakatu ziren *de facto*, nahiz eta azpiegitura aldetik gabezia nabariak izan: sarritan ez dago argiteria eta estolda publikorik, ez dago osasun baldintza egokirik... Gainera, langabeziako eta enplegu ezkutuko tasak Palestinako beste ingurune batzuetakoak baino handiagoak dira, eta pobrezia eragozleak ere are handiagoak dira.

Iheslarien egoera asko aldatzen da babes-herri batetik bestera. Hala, **Jordaniaren** kasuan, palestinarrek hiritartasunari datzekion eskubide guztiak dituzte: Jordaniako pasaportea, bozkatzeko eskubidea, kargu publikoak izateko eskubidea eta prestazio publiko guztiak -hezkuntza...- eskuratzeko eskubidea. **Sirian**, berriz, ez dute pasaporterik, eta horko hiritarren eskubide gehienak jabe izan arren, ez dute ez bozkatzeko eskubiderik ez kargu publikoetan aritzeko eskubiderik. Haien egoera nabarmenki okerragoa da **Libanon**, zeren 1975eko gerra zibilaz geroztik era guztietako eskubide zibil eta politikoak ukatu baitzizkiete palestinarrei. Ez dute pasaporte libanoarrik, ezin dute enplegu

<sup>9)</sup> Hebreerazko hitz horrekin Israelgo ekonomia komunitarioaren antolaketa mota bat izendatzen da.

<sup>10)</sup> Azpimarratu behar dugu datu horiek gutxi gorabeherakoak direla, zeren oso zaila baita palestinar iheslarien zentsu zehatza egitea. Seguruenik, datu errealek handiagoak izango lirake.

publikoetan lan egin, ezta lanbide pribatu askotan ere aritu, eta ezin dute ez jabego pribaturik ez negoziarik izan. Nolanahi ere, Libanoren kontrako azken eraso israeldarraren ondorioz, eta iheslari palestinarrek biztanle libanoarrekin izan zuten jokabide paregabe eta solidarioari esker -milaka pertsoneri lagunduz-, pentsatzekoa eta desiratzekoa da haien egoerak hobera egingo duela.

1948-12-11n, NBEren Batzar Nagusiak **194. ebazpena** onartu zuen. Bertan erabaki zenez, “...*beren etxera itzuli eta auzokideekin bakean bizi nahi duten pertsona iheslariak aukera izan behar dute hori lehenbailehen egiteko...*”, eta kalte-ordainak emateko betebeharra ezarri zen. Ebazpen hori Israelek bete nahi ez dituen ebazpenetako bat da<sup>11</sup>. Iheslarien itzuleraren kontra azaltzeko Israelgo agintariak ematen dituzten arrazoiak hauexek dira, besteak beste: espazio nahikorik ez dutela, segurtasun arrazoiak, eta itzulerak Israelgo izaera judua aldatuko lukeela.

Hala eta guztiz ere, Israelen espazioa da benetan soberan dagoena, zeren biztanleriaren %78 lurraldearen %15ean kontzentratzen baita. Aipatutako *segurtasun arrazoiak* ere funtsik gabekoak dira, zeren iheslarien arazoa konpontzeak ateak irekiko bailizkioke arabiarren eta israeldarren arteko gatazka behin betiko konpontzeari.

Egia esan, lehenbizi bi arrazoiak aitzakiak baino ez dira, zeren haien bidez Israelek ezkutatu nahi baitu zergatik dagoen iheslarien itzuleraren aurka. Izan ere, benetako arrazoa da biztanleria juduak gehiengo izateari utz ziezaiokeela Israelgo Estatuan, eta, beraz, bere botere politikoaren zati bat galdu zezakeela, edo gutxienez arriskuan ikusi. Horrek, gainera, agerian uzten du *judu* deklaritzen den Estatu horren izaera arrazista. Hau da, Estatuak bere herritarren sinesmen erlijiosoa sari-tzen du, beste erlijio bat duten herritarrak edo erlijiorik ez dutenak baztertuz.

Arazoaren konponbidea erraza eta konplexua da aldi berean. Bete beharreko baldintza da desplazatutako eta ihes egindako pertsona guztiei onartu behar zaiela beren lur eta jabetzeetara itzultzeko Eskubidea, eta aukera eman behar zaiela Eskubide hori gauzatzeko. Orobat, ordain ekonomiko-en sistema bat ezarri beharko litzateke herritar horientzat, eta, gainera, eskubide zibil eta politikoen berdintasuna bermatu beharko litzaieke herritar guztiei Palestina historikoan, haien erlijioa, jatorria, etnia edo sexua zeinahi direlarik ere.

---

<sup>(11)</sup> Ebazpena ez betetzeaz gain, gogoan izan behar dugu Absenteen Jabetzaren Legea eta Itzuleraren Legea, Israelek onartuak, zeren lege horiek forma juridikoa ematen baitiete palestinarren lurren desjabetzeari eta lapurretari, sionisten aldetik.

## 4. PRESO PALESTINARRAK, ERRESISTENTZIA ETA DUINTASUN ADIBIDE



Preso palestinarrek pariatzen duten egoerak modu garbiaman islatzen du lur horretan gertatzen den gatazkaren gordintasuna, zeren Israelgo gobernuak bahitu politiko moduan erabiltzen baititu. Kolektibo horren egoeraren errepaso labur bat aski da ikusteko nola haien egoerak, desberdina izan arren, antzekotasun handia duen euskal presoaren egoerarekin, Estatuak kolektibo horretaz egiten duten erabilera politikoari dagokionez.

Une honetan, 9.000 preso politiko palestinar daude, Israelgo 28 espetxetan. Horien artean, gutxi gorabehera 130 emakumeak dira. 1.200 inguru *atxiloketa administratiboaren* mende daude, hau da, espetxeratuta daude zer egotzen zaien jakin gabe. Egoera horrek sei hilabetez iraun dezake, baina epea mugarik gabe luzatu daiteke.

Gaur egun, Said Al-Atabhe da espetxean denbora gehien daraman preso politiko palestinarra, 2006ko uztailean 30 urte bete baitzituen espetxeratuta. Halaber, 60 presok baino gehiagok 20 urte-tik gora daramatzate espetxean. Ia 1.000 preso gaixorik daude, baita batzuk zaurituta ere, balaz zaurituta atxilotu zirelako eta zaintza medikorik hartu ez dutelako. Izatez, Israelgo espetxeetan ez dago ia zerbitzu medikorik, eta kasu gehienetan espetxe-zuzendaritzak uko egiten dio presoak ospitale-ramateari. Osasun asistentzia behar dutenei xantaia egiten zaie, *aitormenaren* truke eskaintzen baitaie.

1967tik aurrera, gutxienez 120 pertsona hil dira espetxe israeldarren barruan, torturen, hilketen edo axolagabekeria medikoaren ondorioz. Horiei gehitu behar zaizkie atxiloketaren unean hil zirenak eta ospitaleetan hildako 170 pertsonak.<sup>12</sup>

Azpitarratu beharreko beste gauza bat da palestinarrek 12 urte betetzen dituztenetik joan daitezkeela espetxera; halaber, ez dago gehieneko adin legalik pertsonak espetxetik ateratzeko. Nerabeen atxilotze eta espetxeratze baldintzak izugarri ankerrak dira. Ziegan osasungaitzetan bizi dira, pilatuta, eta sarritan oso elikadura txarrarekin; gainera, tortura fisiko eta psikologikoak pairatzen dituzte, haien adina kontuan hartu gabe. Horrez gain, ezin dute ikasketekin jarraitu. Bigarren Intifada hasi zenetik igaro den denbora soilik kontatuta, Palestinan 18 urte baino gutxiagoko 5.000 haur atxilotu dituzte, eta horien artean 450ek espetxean jarraitzen dute.

Israelgo Estatuan mota desberdineko espetxeak daude, baina baldintza gizagabe eta umilgarriak guztietan aurkitzen ditugu. Hala, tratu txarrak ohikoak dira, eta baita pilaketa ere -adibidez: Negeveko basamortuan dagoen espetxeak eta espetxe Zentralak 2.000 pertsona baino gehiago dituzte bakoitzak-. Espetxe batzuetan 10-12 pertsona daude ziega bakoitzean. 300-400 presok debekatuta dituzte senideen eta lagunaren bisitak, eta hainbat urte daramatzate horiek ikusi gabe. Medikari palestinarrei ez zaie uzten pertsona presoaren kolektiboa artatzen; hezkuntzari dagokionez, berriz, presoek unibertsitate israeldarretan soilik ikas dezakete, eta horiek 10 aldiz garestiagoak direnez ia ezinezkoa zaie eskubide hori gauzatzea.

---

<sup>(12)</sup> 1967tik aurrera, 650.000 pertsona palestinar baino gehiago atxilotu dituzte, hau da, Gaza eta Zisjordaniako biztanleriaren %20aren adina. Israelgo Estatu sionistak ez du errespetatzen ez Genevako Konbentzioa eta ezta gainerako Nazioarteko Itunak ere, preso politikoek jaso behar duten tratuari eta haien eskubideei dagokionez. Gerra egoeran daukela diote. Torturaren praktika eguneroko kontua da, bai atxilotuengana zuzenduta eta bai presoengana zuzenduta, legeak haren erabilera baimentzen duelako.

Azpimarratu behar da, presoiei dagokienez, 2005eko hasieran 900 preso askatu izana Israelen beste propaganda-ekintza bat izan zela, Europako hedabideen aldetik oso nabarmendua. Izan ere, preso horiek beteta zituzten beren zigorrak, eta harrezkero 3.000 palestinar baino gehiago espetxeratu dituzte arrazoi politikoengatik.

37 diputatu palestinar eta ministro batzuk espetxean ditu Israelek. Kasu ezagunenetako bat Ahmed Saadatena da: Yasser Arafaten Palestinako Aginte Nazionalak modu ilegalean izan zuen espetxeratu-ta 2002tik aurrera espetxe palestinar batean, beste 5 alderdikideekin batera, militar britainiar eta estatubatuarrek zainduta; gero, 2006ko martxoan, Israelek bahitu eta Israelgo espetxe batera eram zuen<sup>13</sup>. Halaber, Al Fatahko buruzagi Marwan Bargouthi 2002etik aurrera dago espetxeratua.

Testuinguru horretan, garrantzitsua da azpimarratzea preso politiko palestinarren aldeko Ad-dameer *Kontzientzia* Elkartea egin ari den lana. Haren eginkizuna Askatasunak Euskal Herrian betetzen duenaren antzekoa da. Atxilotuei eta haien senideei laguntzen die atxilotetaren unean, inkomunikazioaren trabak gaindituz eta non dauden eta zer leporatzen zaien ezagutzen saiatuz. Horrekin batera, legezko asistentzia iraunkorra eskaintzen die eta kanpainak egiten ditu iritzia publikoa sentsibilizatzeko kolektibo horren egoeraz. Ad-dameer legezko erakunde bat da, baina oztopo ugari ditu bere lana normaltasunez aurrera ateratzeko. Miaketak, atxiloteta administratiboak... eguneroko kontua dira.

Espetxearen barnean, presoak beren taldearen edo erakunde politikoaren arabera antolatzen dira, baina horrez gain badute Batzorde bat, non erresistentzia palestinarraren tendentzia politiko guztiak ordezkaturik dauden; Batzorde horren eginkizunak kolektiboaren ordezkapena eta mintzakidetzak dira. Horrez gain, borroka politikoak ere eramaten dituzte aurrera: gose grebak, plantoak, eta abar. Izan ere, jakitun dira espetxean egon arren militante politikoak izaten jarraitzen dutela, eta baita Palestinako askapen mugimenduaren funtsezko atal bat ere.

---

<sup>(13)</sup> "Ikus eranskina: Elkarrizketa Ahmed Saadatekin"

## 5. KOLONIA ISRAELDARRAK: SIONISMOAREN AURRELARIAK



Kolonia israeldarrak Zisjordanian, Ekialdeko Jerusalemen eta Golango Gainetan kokatuta daude gaur egun. 2005era arte, 8.000 kolono inguru Gazan bizi ziren, 22 kolonietan.

Une honetan, Siriako Golango Gainetan okupatutako zatian dauden 33 kolonietan 15.000 kolono sionista bizi dira, okupazio israeldarraren mende bizitzten jarraitzen duten 20.000 siriarrekin batera. Zisjordaniari dagokionez, kolonoen kopurua

200.000 da, eta gutxi gorabehera ehun koloniatan bizi dira. Ekialdeko Jerusalemen, berriz, 200.000 kolono sionista bizi dira, hamabi auzo edo gunetan.

Gobernu israeldarra 1967an hasi zen koloniak eraikitzen, Sei Egunetako Gerra amaitu zenean, berriz ere segurtasun arrazoiak argudiatuta. Harrezkero, kolonia berrien eraikuntza eta lehendik zeudenen zabalkuntza ez dira inoiz ere gelditu, ezta Osloko Akordioak aplikatze fasean zeudenean ere. Aitzitik, garai horretan inoiz baino kolonia gehiago eraiki ziren. Gero eta kolono gehiago finkatzeko ahaleginak egin dira, horretarako era guztietako abantailak eskainiz kolonietara bizitzera etortzea erabakitzen zutenentzat: zerga-salbuespenak, diru-laguntzak, doako etxebizitzak, doako eskolatzea.

Kolonien eraikuntza politika garbi baten ondorioa izan da, alegia, boterean izan diren gobernu israeldar guzti-guztiek -haien joera politika zeinahi zelarik ere- bultzatutako politika baten ondorioa. Koloniek lortu nahi dena da gauzatutako ekintzen politika bat ezartzea, kolonien bidez okupatutako eremuen lurralde-kontrola eta kontrol militarra bermatzeko, soberania palestinarraren bideragarritasuna eragotziz. Halaber, palestinarren eta siriarren uraren, luraren eta baliabide naturalen kontrola ere bilatzen du.

Kokaguneak autodeterminazio Eskubidearen kontrakoak dira, eta baita bi Estatuon balizko konponbidearen kontra ere; izan ere, lurralde palestinarraren erdian daudenez -Zisjordanian eta Jerusalemen-, lurralde horren jarraitasuna eragotzen dute, "bantustanetan" zatitzen dutelako.

Kolonia horiek beren ondoan kokatutako herri palestinarren garapen eta hazkunde egokia eragotzen dute. Hala, koloniek hedatzen jarraitzen duten bitartean, palestinarrak debekatzen diete etxe berriak eraikitzea, kokaguneetatik gertu daudela aitzakiatzat hartuta, eta horrek nabarmenki igorazten du biztanleriaren dentsitatea.

Ildo beretik, kolonoek *hiritartasun israeldarrari* dagozkion eskubide guztiak dituzten bitartean, palestinarrak okupazio militar anker baten mende bizi dira, kolonien hurbiltasunak areagotuta. Kokaguneak guztiz militarizatuta daude, kontrol-postuekin, alanbradekin -hara iristea ezinezkoa izan dadin-, bideo-zainketako kamerekin, eta abar.

Palestinarrak guztiz debekatuta dute kolonietara eta haien ondoko lursailletara sartzea, *segurtasun eremuak* direla aitzakiatzat hartuta. Gainera, debekatuta dute koloniak elkarren artean eta 48ko lurraldeekin -Israel- lotzen dituzten errepideetatik zirkulatzea.

Koloniek sortzen duten diskriminazio eta *apartheid* egoerak nazioarteko legedia urratzen du, Israelen 1967tik aurrera okupatutako lurretan kokatuta daudelako, eta, beraz, *elkarbizitza harreman* guztiz desorekatuak sortzen dituztelako okupatzaileen -kolonoak- eta okupatuak -palestinarrak- artean. Palestinaren eta Israelen arteko gatazkaren balizko konponbide orok baldintza bat bete behar du ezinbestean, alegia, koloniak desegitea eta horko bizilagun guztiak kanporatzea.



## 6. ITOMEN EKONOMIKOA: BESTE SUNTSIPEN-ESTRATEGIA BAT

Herri palestinarra sistematikoki suntsitzera zuzendutako estrategia sionista bizitzaren alderdi eta egoera guztietan gauzatzen da. Errepresioa, hilketak, atxiloketak eta torturak, Apartheidaren Harresia eta gisa bereko neurriak erabiltzeaz gain, palestinarrek zapaltzen saiatzeko sionismoak erabiltzen duen beste elementu bat itomen ekonomikoa da. Herri batek hipotekarik gabe eta modu osoan bere etorkizunaz erabaki ahal izan dezan, soberania ekonomikoa ezinbestekoa da. Hori ondo baino hobeto dakite munduko erregimen zapaltzaile guztiek, eta Israel ez da inola ere salbuespena.

Israelgo Estatuak era guztietako neurriak aplikatzen ditu Palestinaren garapen ekonomikoa eragozteko. Nahi duena da, etorkizunari begira, Estatu palestinarra bideragarria ez izatea.

Hala, gaur egun, Zisjordania eta Gazako egoera ekonomikoa biziki kezkarria da eta okerrera egin du urte batetik hona, zeren Mendebaldeko herriek -batez ere AEBek eta EBko Estatuak- ez baitute onartu Hamasek 2006ko hauteskundeetan lortutako garaipena, eta, beraz, uko egin diote Palestinako Aginte Nazionalari (PAN) laguntzak ematen jarraitzeari. Horrek agerian utzi du AEBek eta Europako herriek *demokraziaz duten kontzeptu murriztailea*, zeren herriek hauteskundeetan adierazten duten borondatea beren interes politiko partikular eta alderdikoiei komeni bazaie soilik onartzen baitute.

Gaur egun, Gazan eta Zisjordanian bizi diren palestinarren %65 baino gehiago langabezian dago. Gazaren kasuan, langabeak %80 dira; zifra horixe da, halaber, esparru horretan pobrezia mugaren azpian bizi den biztanleriarena; Zisjordanian, berriz, ehuneko hori %55 da, gutxi gorabehera.

Egoera ekonomiko larri horren arrazoia Palestinak pairatzen duen okupazioa da. Izatez, Palestinaren potentzialtasun ekonomikoa oso handia da, faktore hauen eraginez:

- Biztanleria palestinarrek kultur eta hezkuntza maila handia du: bere alfabetizazio tasa bere ingurune herrietakoa baino askoz ere altuagoa da, hau da, gizonezkoen %90ak eta emakumezkoen %80k badakite irakurtzen eta idazten, horrez gain, gazte palestinarren erdiak baino gehiago unibertsitate-ikasketak egiten ditu.
- Orobat, atzerrian bizi diren palestinar asko prest leudeke beren herrian inbertitzeko, beharrezkoak diren egonkortasun baldintzak eta gutxieneko azpiegiturak egonez gero.
- Jerusalem, Belen, Hebron, Jeriko eta Palestinako beste eremu batzuetan kokatutako hainbat lekuk garrantzi erlijioso handia dute, eta Itsaso Hila eta gisa bereko beste leku batzuek interes bizia sortzen dute. Horregatik, Palestinak potentzialtasun handia du turismoaren aldetik. Dena dela, Belengo alkate Viktor Batarsehk behin eta berriz adierazi zigunez: *"etengabe pairatzen ditugun okupazioak eta errepresioak ezinezko bihurtzen dute industria turistikoaren gutxieneko garapena"*.

2000. urtean, biztanleria aktibo palestinarren laurdenak Israelen lan egiten zuen, baina II. Intifadatik hona gehienak lanposturik gabe geratu dira, bai *check point* etengabeek mugimenduak eragozten dituztelako eta bai enpresari israeldarrek hainbat langile kaleratu dituztelako, altxamenduaren herri-sostengu zigortzeko.

Palestinako jarduera ekonomiko nagusia nekazaritza da -batez ere olibondoan laborantza-, merkataritzarekin batera; hala, biztanleriaren %25ak baino gehiagok nekazaritzan dihardu ofizialki. Kontuan hartu behar da, dena dela, benetako ehuneko handiagoa bide dela, zeren emakume eta haur asko ere nekazaritzan aritzen baitira modu ez-ofizialean. Produktibitatea txikia da, langile ugari erabili arren teknologia gutxi dagoelako. Horri eurien eskasia gehitu behar zaio, lurralde palestinarrean kokatutako uraren lapurretak eta desjabetzeak are larriagotua. Nekazaritza sektorearen pisuak behera egin du azken hamarkadotan. Egia da horren arrazoien artean landa-eremuetatik hirira



zuzendutako exodoa egon dela, eta baita beste jarduera batzuen igoera ere, baina gainbeheraren benetako zergatia okupazio israeldarra izan da eta izaten jarraitzen du, egunero hau ekarri duelako eta ekartzen duelako:

- Milaka olibondo eta zuhaitzen suntsipena. Hona hemen zifra esanguratsu batzuk, adibide gisa: II. Intifada hasi zenetik 40.000 dunum lur hondatu dira; miloi eta erdi zuhaitz baino gehiago erauzi dira, eta ia 90.000 dunum fruta-arbola Harresiaren atzean blokeatuta geratu dira. Zifra horiek, zoritxarrez, egunez egun handitzen dira.
- Milaka dunum lur konfiskatu dira.
- Israelek zerga eta tasa handiak ezartzen dizkie Gaza eta Zisjordanian ekoizten diren produktuei.
- Uraren lapurreta eta desjabetzea.
- Militar israeldarrek zenbait egunez atxikitzen dituzte nekazaritzako produktuak kontroletan, bero handiko baldintzetan eta oso txarto kontserbatuta, eta, beraz, hondatu egiten dira.
- Gainera, okupazioaren ondorioz, Palestinaren transakzio komertzialen %85 Israelekin egiten da. Estatu sionistak debekatu eta oztopatzen ditu Palestinaren eta hirugarren herrien arteko harreman komertzialak, eta onartzen dituen kasu gutxietan "Israelek bideratzen" dira.

**Arrantza** oso jarduera marjinala da: Gazan soilik egiten da, murrizketa handiekin, marina israeldarrak traba handiak jartzen dizkielako arrantzale palestinarrei. Hala, aipatu behar da marina israeldarraren patruila-ontziak kostaldetik 6 miliara daudela, horixe baita arrantzale palestinarrei "onartzen" zaien arrantza-eremua. Gainera, sarritan, arrantzan dihardutenean patruila-ontzi israeldarrek jartzaten dituzte, eta batzuetan baita tirokatu ere.

**Industriak** oso pisu txikia du ekonomia palestinarrean, Israelen *biktima ekonomiko* nagusietako bat izan baita. Estatu hebrearrak ahalegin nabariak egin ditu Gazako eta Zisjordanian industriaren gutxieneko garapena eragozteko. Horretarako, era guztietako neurriak erabili ditu:

- Bi Intifadek iraun duten bitartean, metalgintzako eta sektore kimikoko lantegi mota guztiak suntsitu ditu sistematikoki, bonbak eta koheteak fabrikatzeko erabiltzen zirela aitzakiatzat hartuta, edo milizia palestinarren ezkutaleku gisa erabiltzen zirela esanez. Askapenako brigadistek Nabaluseko lehengo xaboi-lantegi nagusien hondakinak bisitatu genituen; izan ere, instalazioak suntsituta geratu ziren II. Intifadan.
- Lantegiak eraikitzeko, handitzeko eta/edo konpontzeko baimenak ematea debekatuta dago sistematikoki.
- Ekoiztutako produktuei gehiegizko zergak aplikatzen zaizkienez, produktu horiek ezin lehiatu daitezke, baldintza berdinetan, Israelen ekoizten direnekin.

Gaur egun, Palestinan aurkitu daitekeen ekoizpen industrial bakarra lantegi eta tailer familiarretan egiten da, alor hauetan: elikagaien eta xaboiaren ekoizpena, ehungintza, oinetakoak eta eraikuntza.

Horrez gain, bereziki salatu behar da Estatu sionista israeldarrak era guztietako baimen, lizentzia, diru-laguntza eta zerga-salbuespenak ematen dizkiela kolonietan ezartzen diren planta industrialei. Halaber, israeldarren jarduera industrial kutsagarri gehienak Gazan eta Zisjordanian kokatzen dira, edo Negev basamortuan -herri beduinoaren bizilekua<sup>15</sup>-, sortzen duten kutsadura inola ere kontrolatu gabe eta palestinarrek edo beduinoak bizi diren eremuetatik gertu.

<sup>(14)</sup> 1 dunum = 1000 m<sup>2</sup>

<sup>(15)</sup> Ikus 8.2. kapitulua: "Negev basamortuko herri beduinoa".

## 7. PALESTINA HAMASEN GARAIPENAREN OSTEAN<sup>16</sup>

Hamasek agintera iristeak erabat astindu zuen nazioarteko panorama, protagonistek beren jarrera berraztertu eta birkokatu behar izan baitzuten, eta, beraz, amildegi sakonera zeraman kale itsutik atera zuten arazo palestinarra.

2005eko urtarrilaren 26ko legegintza-hauteskundearen emaitzak hauexek izan ziren: 958.792 boto baliiodunen artean, Hamasek %45,35 lortu zituen, Al Fatah %42,07, PAHFk %4,34, eta gainerakoek - Al Badil, Palestina Independentea, Hirugarren Bidea eta Independenteez - ez zuten botoen %3 gaitu. Hauteskunde-lege berriaren eraginez, jarlekuen banaketak 74 asignatu zituzkion Hamasi, 45 Al Fatahi eta 3 PAHFri; beste alderdiek gainerako 10 jazarlekuak banatu zituzten.

Neurri batean edo bestean, emaitzek analista politikoak harritu zituzten, eta baita analista palestinarrek ere; izan ere, mugimendu islamiarrak azken urteetan izandako aurrerapena nabaria izan arren, inork ez zuen espero, ezta Hamaseko jendeak ere, Al Fatah historikoari gailentzea. Nolanahi ere, herri palestinarren zirkunstantzia sozial, politiko eta ekonomikoek gertaera logiko eta "natural" bihurtu zuten Hamasek garaipen hori.

Gaur egun, hauteskundeetan aukeratutako 132 pertsonetatik 37 espetxean daude, gehienak Hamasekoak. Horiez gain, 6 ministro eta lehen ministrordea ere espetxeratuak izan ziren, azken hori gero askatu bazuten ere.

Zirkunstantzia horiek, palestinarrek mugitzeko dituzten murrizketekin eta askatasun faltarekin batera, ia ezinezko bihurtzen dute modu independente eta eraginkorrean gobernatzea, eta horrek egoera kaotiko bat sortzen du, *intentsitate txikioa* baina iraunkorra.

Legegintza-hauteskundearen emaitza ezagutu ondoren, eta espero zen bezala, Israelek eta AEBek gogor eta erabat kondenatu zuten emaitza hori, esanez ez zutela inoiz ere onartuko gobernu "terrorista" bat -Hamasek sartuta dagoelako AEBek diseinatutako "erakunde terroristen" zerrendan-; era horretan, modu inplizituan, "herri terrorista" irizten zioten herri palestinarri, bere ordezkari politikoak modu garden eta demokratikoan aukeratu arren.

EBri dagokionez, esan behar da mozorroa kendu duela azkenean. Europako herri gehienek, AEBek baino tradizio humanistagoa dutenez, moral bikoitza aplikatzen zioten gatazka palestinar-israeldarrari.

Alde batetik, beren adierazpen-politikaren bitartez, Israel salatzen zuten gizateriaren kontrako krimenak gauzatzen zituenean, eta aldi berean laguntza finantzarioa bidaltzen zuten GKE batzuen bidez, edota Palestinako Agintearen bidez zuzenean, beratu eratu zuten. Frantzia, Alemania eta Italia are urrunagora iritsi ziren, eta Israelekin zuten arma-merkataritza gelditu zuten Jeningo sarraskiaren ostean. Zorigaitzez, boikot hark bi hilabetez soilik iraun zuen.

Beste alde batetik, beren politika operatiboaren bitartez, EBren jarrera Israelen alde finkatzen zen urtez urte, hau da, sionisten alde. EBk lehentasunezko merkataritza-akordio bat sinatu zuen Israelekin, nahiz eta bere lehenengo artikuluan ezartzen den, sine qua non baldintza bezala, merkataritza-harremanetan inplikaturako herriek giza eskubideak eta nazioarteko legedia errespetatu behar dituztela. Ezaguna denez, Israelek ez du baldintza hori inoiz ere bete, 1948an sortu zenez geroztik.



<sup>(16)</sup> Lidón Sorianoaren iruzkina. Komite Internazionalistak eta Palestinarekin Elkartasuna erakundearen kidea.

Adibide berriago bat da EB azken urteotan lantzen ari den auzotasun politika: beraren bitartez, herri hurbil batzuk (hurbiltasun geografiko, politiko eta/edo ekonomikoa) EBko kideak balira moduan tratatu ditu, eta horien artean, jakina, Israel dago.

Hamasen garaipenaren ostean, EBk jarrera hartu behar izan zuen, eta, noski, Israel-AEB ardatzaren aldeko hautua egin zen. Horren ondorioz, laguntza finantzarioak moztu zizkion Hamasen gobernua-ri eta inoizko krisi humanitariorik handienean bizitzera kondenatu zuen herri palestinarra, batez ere Gazan.

Nazioarteko panorama horrek muturrera eramanean du azken hamarkada honetan Palestinako gizarte-  
an abiatua zen prozesu bat. Gizarte hori islamizazio prozesu baten dago sartuta, gizarte konfesio-  
naleko eredurantz biratzen ari da, nahiz eta, historikoki, gizarte palestinarra eta mundu arabiarra oso  
gizarte integratzaileak izan diren, parte-hartzaileak, pluralak, erlijio anitzekoak eta etnia anitzekoak.  
Eta aldaketa hori ez da kasualitatea, baldintza batzuk elkartzearen emaitza baizik.

Alde batetik, eta lehenengo arrazoi gisa, XX. mendearen hasieraz geroztik sionismoak Palestina  
osoan aplikatu dituen estrategia ikaragarriak ditugu.

Kolonizazio prozesu horren puntu gorena Israelgo Estatuaren sorrera izan zen, 1948an, Estatu etniko  
gisa eratu baitzen, arau arrazista batean oinarrituta eta ideologia mesianiko-nazionalista batez justifi-  
katuta.

Nazioarteko komunitateak -batez ere Europa-, holokausto naziaren errudun sentituz, bidegabekeria  
bat konpondu nahi izan zuen neurri bereko beste bidegabekeria bat sortuz: 1947an, Palestina his-  
torikoa zatitzeko plana aurkeztu zuen, xantaia emozional sionistaren aurrean amore emanda.  
Sionismoak nazioarteko zuzenbide publikoaren bultzada izan zuen hasieran, baina geroago zuzen-  
bide hori baztertuz eta mesprextatuz joan zen urtez urte, bere benetako helburua betetzeko: herri  
palestinarraren garbiketa etnikoa gauzatzea, eta Israel ingurune horretako zaindari eta inperialis-  
moaren bermatzaile bihurtzea, mundu arabiarrean.

Alde horretatik, ez dugu ahaztu behar Israelgo Estatu sortu izanaren arrazoi nagusia logika inpe-  
rialistatik datorrela, hots, helburua ingurune horretako baliabide natural eta energetiko eskergak  
kolonizatzea eta kontrolatzea dela, hau da, baliabide ekonomiko eta geostrategikoak; horixe defen-  
datzen zuen Theodor Herzl, sionismoaren aitak berak, XX. mendearen lehenengo erdiko gober-  
nu europarren aurrean.

Israelgo Estatu sortu zenetik aurrera, estrategia sionisten xedea horko herritar palestinarrek kan-  
poratzea eta/edo desagerraraztea izan da, eta horretarako hainbat tresna erabili dituzte, hala nola  
lurrak masiboki konfiskatzea, etxeak eraistea, nekazaritza-eremuak suntsitzea, koloniak eraikitzea  
lurralde okupatuetan, herritarrek zigor kolektibo gisa espetxeratzea, mugitzeko askatasuna murriz-  
tea edo eragozte... Azken batean, beraz, biztanleria palestinarra itozteko politika bat eramanean du  
aurrera, bai fisikoki eta bai alor politiko, ekonomiko eta sozialean ere.

Beste alde batetik, Palestinako Aginteak (PA) -1994an sortua- eta Palestinako Kontseilu Legegileak -  
1996koa- gauza bakarra egin dute beren sorreratik, Arafat presidentea izanik, hots, nazioarteko lan-  
kidetzatik zetorren diruaren zati handi bat erabili dute hainbat segurtasun-erakunde eta funtzional-  
tasun gutxiko estruktura administratibo burokratizatuak sortzeko, ustelkeria nabarmenki hazten zen  
bitartean.

Gisa berean, politika palestinarren azken urteotako ezaugarri nagusia Israelen eta AEBen eskari  
guztien aurrean amore ematea izan da; horri dagokionez, deigarriena eta onartezinena izan da bere  
lehentasunen artean sartu duela bere herriaren erresistentzia armatu eta zilegiaren kontra borro-  
katzea.

Horrekin guztiarekin, PAK gero eta ezinegon handiagoa sortu du gizarte palestinarren baitan, eta baita bere alderdiaren barnean ere -Al Fatha-.

Eta triangeluaren hirugarren aldean laurogeiko hamarkadaren amaieran sortutako erakunde bat aurkitzen dugu, gizarte palestinarrean sustrairik ez duena; izan ere, beraren kideak Israelek 1978an onartutako karitatezko erakunde batetik datoz, hots, PAE ahultzeko xedez Israelek onartutako erakunde batetik, Mujama izenekoa eta Ahmed Yassin jekeak zuzendua.

Karitatezko erakunde hori osatzen duten pertsonak Egiptoko Anaia Musulmanen doktrinaren oinordekoak dira; gogoan izan behar dugu, alde horretatik, Palestinan XX. mendearen erdian finkatzean erakunde horrek zuen helburua hauxe zela eta izaten jarraitzen duela: gizarte palestinarra islamizatzea, haren izaera laiko eta plurala galaraziz. Egia da mugimenduari izaera nazionalista ematen ari zaiola arian-arian, baina hasieran ez zuen ezaugarri hori. Erakunde hori Hamas da, hots, "erresistentzia islamiarrek mugimendua"; akronimo horrek "gogo beroa" eta "grina" ere esan nahi du.

90eko hamarkadan, Hamasek laguntza finantzario ikaragarria lortu zuen Golkoko petrolio-familia nagusien aldetik, familia horiek Hamasera bideratu zutelako ordura arte PAEri ematen zioten dirua, Arafat zigortzeko xedez; izan ere, Arafat Saddam Husseinen alde agertu zen Irakera egindako bidaian, Golkoko lehenengo gerraren garaian. Hamasek dirutza hori erabili zuen eskola-, osasun- eta karitate-azpiegiturak handitzeko eta hobetzeko, sare paralelo bat sortuz Estatuaren sarearen aldean. Sare hori eraginkorra izaten zen ia beti, eta hobeto kudeatuta zegoen. Halaber, 90eko hamarkadaren hasieran Ezzedeen El Qassam brigadak sortu zituen, bere beso armatua izan zedin. Erakunde horrek erresistentzia ekintza ugari gauzatu zituen, eta, beraz, herritar gehienek beren "benetako defendatzailetzat" hartzen dute.

Horren guztiaren eraginez, arian-arian, Hamas erreferentzia bihurtu da gizarte palestinarrentzat. Erresistentziaren erreferentzia, eta erreferentzia bat Estatuko gaiak modu eraginkorrean eta gardenean kudeatzeko erakutsi duen gaitasunagatik.

Beraz, triangeluren hiru aldeak hauexek dira: (1) herri palestinarrek pairatzen duen egoera sozio-ekonomiko etsigarria. (2) PAEren gobernuarekin dagoen atsekabea, beraren praxi politikoa txarragatik, herria traizionatuta eta abandonatuta sentitzen baita. (3) Hamasen politika eta baliabideak onuragarriak dira herriarentzat, karitate aldetik, eta, gainera, erakundeak jarrera irmoa azaltzen du etsaiaren aurrean, bere herriaren nahiekin bat etorrita. Hala, horren guztiaren emaitza ezin garbia da: Hamasen Garaipena.

Hiru aldagai horiei beste bat gehitu behar diegu, hots, gizarte palestinarra itxaropena galduz joan dela. Jendea abandonatuta sentitzen da, badaki abandonatuta dagoela. Nazioarteko komunitateak huts egin dio, zeren ez baititu aplikatu Israelek egunero, zehaztasunez eta etengabe gauzatzen dituen bidegabekeria larriak eragozteko iraganean sortutako tresnak. Herri arabiar "anaiak" Mendebaldearen aldeko monarkia eta gobernu ustelen esku daude gehienak, salbuespenak salbu (Iran eta Siria), eta herri adoretzu horren zoritxarra handitu baino ez dute egiten.

Beraz, testuinguru gogor eta zail horretan, giza alderdiek eta alderdi materialek huts egin dutenean, ez da harrizkoa pertsona batzuek -iraganean laikoak eta ezkerrekoak izan arren- zerbait finko bilatzea, alegia, ezin huts diezaiekeen zerbait bilatzea, eta zerbait hori naturaz gaindiko izaki bat da, jainko bat: Ala.

Hamasen garaipena, nolabait, gizarte palestinarrean gertatzen ari den islamizazio prozesu horren isla eta azalrapena izan da. Ez dut uste prozesu hori atzeraezina denik, baina oraingo nazioarteko testuinguru honetan geldiezin da, zalantzarik gabe.



Bere egoera eta zirkunstantzietan erabat errespetagarria eta ulergarria bada ere, uste dut prozesu hori benetan kezkarria dela.

Nire iritziz, Palestinako gaurko egoera oso onuragarria da Israelentzat eta sionismo judu-kristauarentzat, zeren hainbat hamarkada baitaramatzate helburu garbi bat bilatuz: Erdialdeko Ekialdearen mapa berrantolatzea. Eta horretarako beste helburu bat lortu behar dute, hots, mundu arabiarra suntsitzea, historikoki plurala eta integratzailea baita, haren ordezkari islamismoa lotura bakartzat duen eremu desegituratu bat jartzeko, laikotasunaren, aurrerakoitasunaren eta -jakina- sozialismoaren zantzu guztiak ezabatuta. Izan ere, gobernu islamiarren politika ekonomikoa nabarmenki neoliberal da.

Horrek eskualde arabiarra eraldatuko luke, eta bertan, adibidez, irakiarra izan aurretik xiia edo sunita izango litzateke biztanleria, eta palestinarra edo arabiarra izatearen gainetik musulmana izango litzateke. Gizarte horiek erlijio-sinesmenen bidez egongo liriteke uniformizatuta, eta, hortaz, errazagoa izango litzateke bata bestearen kontra jartzea. Testuinguru horretan, garbi dago zein den inperialismoak -eskualde horretan Israelen bidez ordezkaturik- Palestinarentzat izango lukeen helburua, alegia, etorkizuneko Estatu palestinar *bantustanizatua* estatu konfesional bihurtzea. Estatu konfesional bat, musulmana, beste estatu konfesional baten harreman-kide izateko, hots, estatu konfesional juduaren harreman-kide izateko. Horren bidez desagertuko liriteke palestinar musulman, kristau eta ateo askok -eta baita judu batzuek ere- Palestina historikoaren lurralde osoan Estatu demokratiko eta plural bat sortzeko duten asmoa, alegia, sinesmen eta kolore guztietako pertsonak elkarrekin bizi diren estatu bat, gizarte heterogeneo bat itxuratuz, eskubide berdintasunarekin.

Logika inperialistak ezin du ideia hori inola ere onartu.

Egungo inperialismoan jaun eta jabe den fundamentalismo judeokristauak aurrez aurre behar du fundamentalismo musulmandarra ere, eta horretarako bere oinarri nazkagarriak zalantzan jar ditzakeen edozein giza erlazio era alternatiboa suntsiarazi behar du.

Ez da inondik inora nire asmoa palestinar herria baino palestinarragoa bezala agertzea eta, beraz, ez duk nik esango nola bizi behar duten, hori eurek soilik erabaki dezaketelako. Izan ere, herrien autodeterminazio eskubidean sinisten dut, berauen burujabetzan eta erabakitze eskubidean. Baina, internazionalista naizen aldetik, uste dut nire sostengua agertu behar diedala nazio egitasmo zehatz baten alde borrokatzen dutenei, gizon-emakume guztientzako eskubide berdintasunean oinarrituta egongo dena, justizia sozialean oinarrituta ere egongo dena, askatasuna eta demokrazia zutabe izango dituen herri egitasmoaren alde egin behar dudala.

Dena den, indar berdinez uste dut herri palestinarraren bidezko borroka babestu behar dudala eta, ildo horretan, inongo zalantzarik gabe, sionismoa jarraitu behar dugula seinalatzen horrenbeste injustizia eta sufrimenduren iturburu nagusi bezala, Israelgo Estatu eskualdeko indar nagusi eta bakarra izatea bilatzen baitu. Horretarako, hain zuzen ere, arabiartasun identitate zeinuak suntsitu behar ditu, gizarte ezberdinak homogeneizatuko dituen egitasmo estratejiko baten bitartez, bereaien egitura sozioekonomiko eta kulturalak mundu neoliberal globalizatu honetako ereduera hurbilduz.

## 8. BORROKAK JARRAITZEN DU 48KO LURRALDEETAN ETA SIRIAKO GOLANGO GAINETAN

Sarritan, Israelgo Estatu sionistaren kontrako borrokaz hitz egiten dugunean, borroka hori 1967an okupatutako lurralde palestinarretan -Gazan eta Zisjordanian- soilik gertatzen dela pentsatzeko joera dugu, baina hori ez da guztiz zuzena, zeren 48an okupatutako lurraldean ere -gaur egun Israel deitzen den lurraldean- badira herri borroka batzuk, hain ezagunak ez izan arren interesgarriak ere badirenak. Idazki honetan hiru azpimarratu nahi ditugu, modu zuzenean ezagutu genituelako.



### 8.1.- 48ko LURRALDEETAN BIZI DIREN PALESTINARREN BORROKA

Israelgo Estatuan 1.200.000 palestinar inguru bizi dira gaur egun, biztanleria osoaren %20. Ofizialki eta teoriaz, biztanleria horrek biztanleria israeldarraren eskubide berdinak ditu, baina errealitatean hori ez da egia. Hala, haien mugimendu askatasuna mugatuta dago, palestinar horiek ezin baitituzte bisitatu Gazan eta Zisjordanian dituzten senideak edo lagunak. Beste alde batetik, arabiera Israelgo hizkuntza ofiziala da teorikoki, hebraierarekin batera, baina, Euskal Herrian euskararekin gertatzen den bezala, administrazioak ez ditu bermatzen hizkuntza eskubideak, halako moldez non biztanleria palestinarren kolektibo horrek ez baititu zerbitzu publikoak bere hizkuntzaz eskuratzeko, eta ezin ditu bere ikasketa guztiak arabieraz egiti. Gainera, herritar horiek debekatuta dute lanpostu publiko jakin batzuetan aritzea, eta baita sektore pribatuko jarduera jakin batzuetan ere -aeronautika, sektore elektriko eta kimikoa...-.

48ko lurraldeetan bizi den biztanleria palestinarrek zuzenean parte hartu zuen Intifadan, eta Israelek 11 pertsona hil zituen Nazarethen eta horren inguruko herrietan -han bizi dira palestinar gehienak. 48ko lurraldeen barnean milaka iheslari daude, hots, *barneko desplazatuak*, beren iraganeko lurretara itzultzeko eskubidea lortzearen alde borrokatzen direnak. Gaur egun, 120 preso palestinar 48ko lurraldeetakoak dira jatorriz. Beraz, nazionalitate israeldarra dute, eta horregatik zigor are gogorragoak ezartzen dizkiete, Israelgo Estatuak *traidoretzat* hartzen dituelako eta haien kondenak handitzen dituelako.

### 8.2.- NEGEV BASAMORTUKO HERRI BEDUINOA

Iraganean nomada izan zen nazio hau herri batzuetan bizi da konfinatuta, hots, benetan erreserbak diren herri batzuetan.

1948an 12 milioi dunum lur zituzten; gaur egun, berriz, 185.000 dunumeko eremu batean bizitzeko borrokatzen ari dira. Guztira 52 herri badituzte ere, Israelgo Estatuak 7 soilik aitortzen ditu, eta hor bildu nahi ditu biztanle beduino guztiak. Horrek esan nahi du Israelek edozein unetan suntsitu ditzakeela gainerako herriak edo horko etxe batzuk, maiz egiten duen moduan. 120.000 biztanle beduinoen artean, 85.000 *Israelek aitortzen ez dituen* herrietan bizi dira; herri horiek, ofizialki onartuta edo aitortua ez daudenez, ez dute oinarritzko azpiegiturarik -argia, ura, zerbitzu publikoak, estolderia, eskolak, pertsonal medikoa...-. Langabezia-tasa %75 da gizonen artean eta %98 emakumeen artean.

Haur beduinoek hebraieraz ikasi behar dute, eta liburu sionistetan kontatzen den Israelgo historia kontatzen dute; liburu horietan, jakina, ez da ezer esaten herri beduinoaren historiari eta tradizioei buruz.

Herri beduinoaren borroka gehienbat kulturala da. Helburua da bere bizimodua eta lurrak mantentzea eta bere bizilekuen onarpen legala lortzea, bizi baldintza duinak bermatu ahal izateko herri

horietan. Palestinako kolonoekin gertatzen den bezala, Israelek era guztietako erraztasunak eta pizgarriak eskaintzen dizkie beduinoenak ziren lurretan bizitzera doazen sionistei -6.000 dunum lur, etxeak, zerbitzu publikoak-. Gainera, beduinoek ezin dute lurrik erosi, zeren eta, Israel *lur judua* denez, erosteko eskubidea juduei soilik aitortzen baitzaie.

### **8.3.- ERRESISTENTZIA SIRIARRA GOLANGO GAIN OKUPATUETAN**

1967az geroztik Israelek okupatuta duen Siriako eremu horretan 20.000 siriarrak bizi dira, 6 herritan banatuta, eta Siriarekin berriz elkartzearen alde borrokatzen dira. Gaur egun Israelen kontra borrokatzen dira, aurreko mendearen amaieran okupatzaile frantsesaren kontra egin zuten bezala. Biztanle horiek aurre egin behar diote azken urteotan beren lurretan finkatu diren 15.000 kolono sionisten jazarpenari. Izan ere, leku horretan 33 kolonia daude, tanke eta soldadu israeldar ugari babestua. Ingurune horretako lur-eremu asko pertsonen kontrako minez josita daude oraindik ere, eta horrek zibilak hiltzen ditu maiz. Eskualde horretako jatorrizko biztanleriaren %50 baino gehiago Sirian dago babestua gaur egun, eta badira 20 preso politiko, borrokatzeko forma guztiak erabiltzen dituen erresistentzia bat badagoela islatuz. 1982an, Estatu sionistak *nazionalitate israeldarra* eman nahi izan zien Golango Gainetako biztanleei, baina azpimarratu behar da horko biztanleek desobediencia zibileko mobilizazio izugarria egin zutela, nazionalitate hori errefusatu eta Siriako biztanle zirela berretsiz.

Azken batean, hiru herri -palestinarra, beduinoa eta siriarra- borrokatzen okupatzaile berberaren kontra, hots, Estatu sionista eta -beraz- inperialista israeldarraren kontra.

## 9. KONPONBIDEA: ESTATU BAT ALA BI?

Palestinarren eta israeldarren arteko gatazkak zer konponbide izan lezakeen aztertzean, galdera hauek planteatzen dira behin eta berriz: zein da aukerarik bideragarriena? Estatu bakar bat sortzea Palestina historiko osoan, ala bi Estatu burujabe eta independente eratzea -Palestina eta Israel-?

Gai hori oso korapilatsua da, eta hemen ez dugu erantzun baten edo bestearen alde agertu nahi, zeren Palestina Estatu sionista israeldarraren kontra jartzen duen gatazkaren edozein behin betiko konponbidek herri palestinarraren oniritzia behar baitu ezinbestean. Palestinarrak dira bidezko bakearen terminoak zein diren erabaki behar dutenak, haiek baitira giza eskubideen eta eskubide zibil eta politikoen urraketa egunero pairatzen dutenak.

Hala eta guztiz ere, hurrengo lerroetan azalduko dugu zer alternatiba proposatzen diren, zenbait sektoretatik, gatazka gogor hau konpontzeko.

### 9.1.- BI ESTATUEN KONPONBIDEA

Bi Estatuaren alternatiba berri samarra da espektro politiko palestinarraren, zeren Palestinako Kontseilu Nazionalak 1988an planteatu baitzuen aurreneko aldiz, Yasser Arafat haren presidentea zenean. Planteamendu horri lotuta etorri zen Israelen existitzeko eskubidearen aitortza, urte bereko abenduaren 13an, Yasser Arafaten eta PAEren aldetik. Azpimarratu behar dugu alderdi islamiarrak Israel aitortzearen kontra daudela.

Al Fatahk -batez ere- bi Estatuaren konponbidea zergatik onartu eta defendatzen duen ulertzeko modu bakarra ikuspegi pragmatikotik begiratzea da, hots, mende erdi baino gehiagoko okupazioak herri palestinarraren sektore jakin batzuetan eragin dituen nekea eta sufrimendua kontuan hartzea. Hala, bi Estatuaren konponbideak Estatu Palestinar burujabearen sorrera proposatzen du; Estatu Gazak eta Zisjordaniak osatuko lukete, eta hiriburua Ekialdeko Jerusalem izango litzateke. Estatu hori Israelgo Estatuaren ondoan existituko litzateke. Izatez, 1993an Osloko Akordioak sinatu zirenean, jende gehienak segurutzat jo zuen epe ertainera Estatu palestinar burujabea sortuko zela, lehen adierazitako eran.

Nolanahi ere, eta paradoxikoa badirudi ere, hurrengo urteetan gertatu zen hedapen kolonial sionistak -Gaza eta Zisjordaniako kolonien hazkunde eta hedapenarekin, eta Zisjordanian sartu, herri palestinarra zatikatu eta Gaza inguratzen duen *Apartheidaren Harresiarekin*- ezinezko bihurtu du errealtatean bi Estatuaren konponbidearen bideragarritasuna, gutxienez jatorrian ezagutzen zen moduan.

Izan ere, orain sortzen diren zailtasunak politikoak, logistikoak eta teknikoak dira: gaur egun 200.000 kolono sionista baino gehiago daude Zisjordanian eta beste 200.000 Ekialdeko Jerusalem (gehi 15.000 Golango Gainetan). Gainera, Gaza inguratzen duten alanbrada elektrifikatuek eta Harresi zatiek aire zabaleko espetze bat bihurtu dute, eta gauza bera gertatuko bide da Zisjordanian, zeren hor lurraldearen erdian eraikitzen ari baita Harresia, herritar palestinarrak, familiak eta lagunak elkarrengandik banatuz.

Horren guztiaren eraginez -koloniak, Harresia, kolonoek soilik erabil ditzaketen errepideak, alanbradak,...- Zisjordania zatituta dago Hegoafrikako *apartheidaren* garaiko ereduaren arabera. Hartara, Israelek eremu bereiztuetan zatikatzen ditu lur palestinarrak eta apartheid politika ezartzen du, kolonoei pribilegio bereziak emanez -Hegoafrikan zuriei ematen zitzaizkien antzera- eta palestinarrak ghetto miserabletan bizitzera behartuz, mendetasun egoera gordinean eta pertsona



bezala dagozkien oinarrizko eskubideak errespetatu gabe. Herritar palestinarrei udal gaien kontrola soilik uzten zaie, beti ere Israelen mende eta beraren kontrolpean.

Horrenbestez, kolonia israeldarrek erabat desegin ezean eta harresia suntsitu ezean, Estatu palestinarra sortzeko edozein proiektuk ez luke lurralderik izango Estatu moduan funtzionatzeko. Horrez gain, kolono israeldarrek Ekialdeko Jerusalemetik ere alde egin beharko lukete, eta Israelgo Estatuak bertan behera utzi beharko lituzke Palestinako garapen ekonomikoa eragoztera eta haren bideragarritasuna oztopatzera zuzendutako praktika guztiak -lehen adierazi dugun moduan<sup>17</sup>.

Dena dela, Estatu bakarra sortzearen bidezko konponbidea defendatzen dutenei dagokienez, azpimarratu behar dugu ezen, gaur egun gehienek uste dutela bi Estaturen konponbidea lehenengo urratsa izan litekeela, aldi iragankor bat, hainbeste maite duten helburua lortzeko bidean, alegia, Palestina historikoan Estatu bakarra sortzeko bidean.

## 9.2.- ESTATU BAKARRAREN KONPONBIDEA

Arrazoi historiko eta politikoez gain, konponbide honek badu beste elementu bat bere alde, alegia, gaur egun oso zaila dela lortzea bi herrien arteko bereizkuntza fisikoa. Lehen aipatutako arrazoiez gain, eta ia 400.000 kolono israeldar egoteaz gain, kontuan hartu behar dugu Israelgo Estatuako biztanleriaren %20 palestinarra dela jatorriz -ez dugu ahaztu behar Estatu horrek Palestina historikoko lurrak okupatzen dituela-.

Aurrekoaz gain, eztabaidatu behar den beste elementu bat da ea Estatu horrek zer forma hartu beharko lukeen: Estatu islamiarra izan beharko ote luke, bi nazioko Estatuak -batzuek aldeztzen duten moduan- ala Estatu demokratiko eta laikoa?

**Palestina historiko osoan Estatu islamiarra sortzea** da erakunde islamiarrek -Hamas eta Jihad Islamiarra, adibidez- defendatzen duten aukera, ñabardurak ñabardura. Erakunde horiek esaten dute gainerako etnietako edo erlijioetako -judua eta kristaua, adibidez- pertsonen eskubide erlijioso, zibil eta politikoak errespetatuko liratekeela beti. Azpimarratu behar da, alde horretatik, Palestinako mugimendu islamiarrak jarrera eta helburu propioak dituela, eta horren edukia politikogoa dela erlijiosoa baino. Munduko beste mugimendu islamiar batzuek ez bezala, Palestinakoak badu behar sozialei aurre egitera zuzenduta sare bat, eta bere diskurtsoak karitatea defendatzen du premia ekonomikorik handiena behar duten herritarrentzat.

**Bi nazioko Estaturen** ideia arabera, biztanleria palestinarra -alde batetik- eta biztanleria hebrearra -bestetik- komunitate bereiztu bezala existituko lirateke esparru federal baten baitan. Komunitate bakoitza modu autonomoan antolatuko litzateke, eta bakoitzak bere hizkuntza, tradizioak eta erlijioa erabiliko lituzke, baldintza berdinetan. Alternatiba honek ez du jarraitzaile askorik gaur egun Palestinan. Agian beraren defendatzaile ezagunena Edward Said unibertsitate-irakasle zendua zen.

Palestinako sektore aurrerakoiek eta ezkertiarrek -Palestina Askatzeko Herri Fronte (PAHF) batik bat- eta israeldar batzuek -ehunaka batzuek soilik- **Estatu demokratiko eta laiko bakarra defendatzen dute Palestina historiko osoarentzat**, euren ustez horixe delako gatazkari eman dakioken behin betiko konponbide egoki bakarra. Horrek ez du esan nahi ezin izango litzatekeela fase iragankor bat egon, non bi Estatuak aldi berean existituko liratekeen, edota bi nazioko Estatu bat.

<sup>(17)</sup> Ikus 6. kapitulua: "Itomen ekonomikoa: beste suntsipen-estrategia bat.

Palestina historiko osoa barne hartuko lukeen Estatu laiko eta demokratiko horrek haxe ekarriko luke berekin:

- Eskubideen berdintasuna bizitza politiko, zibil eta erlijiosoaren eremu guztietan, "*pertsona bakoitzak boto politiko bakarra*" dioen premisa oinarritzat hartuta, inolako diskriminaziorik gabe norberaren etniagatik edo fede erlijiosoagatik. Hain zuzen ere, gaur egun Palestina historikoan (Israel, Gaza eta Zisjordania) gertatzen denaren kontrakoa.
- Herritar palestinarrek konpentsazioa jasoko lukete azken mende honetan pairatu dituzten lur eta ondasun lapurreta eta arpilatze sistematikoagatik.
- Iheslari guztiei aitortuko litzaieke beren lurretara itzultzeko eskubidea.
- Hiriburua Jerusalem izango litzateke.



Alternatiba honi bi eragozpen jarri ohi zaizkio, funtsean:

Alde batetik esaten da biztanleria palestinarrek eta israeldarrak ez luketela inoiz ere onartuko integratzea eta elkarrekin bakean bizitzea. Eragozpen hori, ezin ukatuzkoa bada ere, ez da gaindiezina; izan ere, gizateriaren historian asko izan dira garai batean etsai amorratuak izan ostean gero adiskidetu eta elkarrekin bakean bizi izan diren komunitateak eta herriak. Horren azken adibideak Hegoafrika eta Montenegro dira, azken horretan bakean bizi baitira serbiarrak eta montenegroarrak. Kasu konkretu bakoitzak bere berezitasunak dituela jakin arren, adibide horiek eta beste batzuek garbi uzten dute posible dela bi komunitate elkarrekin existitzea.

Beste alde batetik, eta aurreko argudioaren ildotik, Palestina historiko osoan Estatu laiko eta demokratiko bat gaur egun sortzea utopia hutsa dela esaten da, beste arrazoi batzuen artean israeldarrek ez luketelako onartuko beren jabetzat hartzen duten lurra baldintza berdinetan konpartitzea. Horrek egia dirudi, nonbait, zeren Estatu israeldarrak aurrera eramane dituen gerra-politikak eta kolonialismo espansionistak ezer gutxi adierazten baitute beraren alde, eta bai asko beraren kontra.

Hala eta guztiz ere, gaur egun horixe da aurkitu daitekeen eta iraun dezakeen irtenbide bakarra, arrazoi hauengatik:

- Ez da batere errealista pentsatzea 5 milioi eta erdi israeldar prest leudekeela gaur egun okupatzen duten Palestina historikoaren zatia uzteko, edota nazioarteko komunitateak beharko lituzkeela. Beraz, edozein konponbidek onartu beharko du israeldarrek lur palestinarrean jarraituko dutela.
- Lehen adierazi dugun moduan, Israelen politika anexionistak bideragarritasun praktikorik gabe utzi du bi Estaturen konponbidea; izan ere, Harresiak eta Zisjordaniako zatiketak ezinezko bihurtu dute Estatu palestinarra sortzeko proiektu oro.
- Gainera, Israelgo Estatuaren ondoan Estatu palestinar bat sortuko balitz ere, gatazka bere horren iraungo luke iheslarien itzultze-eskubidea bermatzen ez den arte, Israelen bizi diren palestinarrei -biztanleriaren %20, jatorriz- beren eskubide zibil eta politikoen berdintasuna onartzen ez zaien arte; hau da, azken batean, Palestina historikoko palestinar guztien eskubideak bermatzen ez diren arte.
- Aurrekoz gain, herritar palestinarrek orain dela gutxira arte beren lurraldea izan zen eremuaren %22an (askoz jota) bizitzera kondenatzea bidegabekeria historiko larria izango litzateke.

Kapitulu honen hasieran adierazi dugun moduan, hemen adierazi ditugun iritzi zilegietatik haratago, Palestina Israelen kontra jartzen duen gatazka konponduko lukeen irtenbideak herri palestinarren oniritzia eta bermea izan beharko luke.

## 10. SIONISMO ISRAELDARRARI BOIKOTA!<sup>18</sup> GURE ELKARTASUN-EKARPENA HERRI PALESTINARRAREN BORROKARI

Aipatutako guztia munduaren aurrean gertatu da eta gertatzen jarraitzen du, AEBek eta Europar Batasunak Estatu israeldarra maila guztietan (politikoa, ekonomikoa,...) sostengatzen duten bitartean. Estatu sionista israeldarraren botere politiko, ekonomiko eta militarra ezagututa, Estatu hori munduko edozein lekutan boikotatzea nazioarteko protesta-neurri eraginkorra da.

2005eko uztailaren 7an, Palestinako eta diasporako 170 erakundek mundu osora zuzendutako deialdi bat sinatu zuten, "boikot, desinbertsio eta zigor" kanpaina bat garatzeko, "Israel isolatzea" helburutzat hartuta.

*"Apartheidaren Harresiaren bidez -Nazioarteko Justizia Auzitegiak esandakoa gorabehera Israel Zisjordanian eraikitzen ari den Harresia- herri palestinarra ghettotan ixteko asmoari aurre egin nahirik, eta hirugarren Naqba -katastrofea- modu geldoan baina geldiezinean sortzeko arriskuari aurre egin nahirik, mugimendu eta erakunde palestinarrek Israel isolatzera eta justiziaren eta askapenaren aldeko borroka palestinarrekin bat egitera dei egiten diote mundu osoari".*

Mundu osoko milaka talde eta pertsona ospetsuk bat egin dute honezkero ekimen horrekin, eta zerrendak hazten jarraitzen du. Azpimarratzekoa da Nafarroako udal batzuen atxikimendua: Arbizu, Arruazu, Ziordia, Etxarri-Aranatz, Bakaiku eta Urdiain. Horien arteko lehenengoa, gainera, Palestinako Marda herriarekin dago senidetuta. Askapenak proposatuta, Nafarroako udal horiek mozio bat onartu zuten Israelgo Armadak herri palestinar eta libanoarraren aurka gauzatzen dituen erasoak salatzeke eta Israelekin zerikusia duen osoa boikotatzeko -jarduera akademikoak, kirolaren eremukoak, kulturalak...<sup>19</sup>.

Boikot eredu hori Hegoafrikako Estatu arrazistaren aurka orain dela urte batzuk egin zenaren antzekoa da. Munduko leku askotan Hegoafrikaren aurka aplikatu zen osoko boikota funtsezkoa izan zen bertako Apartheid erregimenarekin amaitzeko.

Boikota eraginkorra izan dadin, herrien eta pertsonen eskubideak defendatzen ditugun milioika pertsonok boikotaren potentzialtasunean sinetsi behar dugu, baldin eta osoa eta iraunkorra bada. Gainera, gizartearen sektore ugari barne sartzeko aukera eskaintzen du, eta baita gizartea sentsibilizateko, kontzientziatzeko eta haren erantzuna eskatzeko. Euskal Herriari dagokionez, Palestinak askatasunaren alde daraman borroka bere egiten duten pertsona eta erakunde guztiak inplikatu nahi ditu.

Orobat, asmoa da enpresa sionistekin Euskal Herrian negozioak egiten dituztenak presionatzea.

Badakigu, ondo jakin ere, Israelek herri palestinarren kontra zuzentzen dituen politikek sortzen duten gaitzespena bideratzeko boikot horrek izan ditzakeen efektuak ez direla berehalakoak izango. Hori horrela, Askapenak, Komite Internazionalistek eta pertsona batzuek -beren kabuz- "Israeli Boikota! Euskal Ekimena!" deritzan ekintza abiatu dute. Ekimen hori 2006ko azaroan aurkeztu zen, Bilbon, eta beraren asmoa da ekarpen positibo bat egitea Euskal Herriatik nazioarteko boikot kanpainari. Une honetan, asmoa da kanpaina hori gizartera zabaltzea eta ezagutzera ematea, ekimen batzuen bitartez.

<sup>(18)</sup> Ekimen hau eta beste zenbait, interneten web orrialde batzuetan kontsulta daitezke:

[www.israeliboikot.org](http://www.israeliboikot.org)  
[www.boicotpreventiu.org](http://www.boicotpreventiu.org)  
[www.indymedia.org](http://www.indymedia.org)  
[www.rebellion.org](http://www.rebellion.org)  
[www.nodo50.org/csca/palestina/campanya\\_boicot-2002.html](http://www.nodo50.org/csca/palestina/campanya_boicot-2002.html)  
[www.stophthewall.org](http://www.stophthewall.org)

<sup>(19)</sup> GARÁ egunkaririk hartutako informazioa (2006/12/10, J.A. Oriak sinatua).

## ERANSKINA

Elkarrizketa Palestina Askatzeko Herri Frontearen (PAHF) Idazkari Nagusi Ahmed Saadatekin. Elkarrizketa Askapenaren Palestinako brigadistek egin zuten Jerikoko espetxe palestinarrean, 2005eko abuztuaren 26an, eta Gara egunkarian argitaratu zen urte horretako azaroaren 20an.



## “BAKE-PROIEKTU BAKARRA PALESTINA OSOAN ESTATU DEMOKRATIKO BAT SORTZEA DA”

*Ahmed Saadatek Abu Ali Mustafa ordezkatu zuen Armada israeldarrak hil zuenean, 2001eko abuztuaren 27an, Ramalan. Bost orduz aritu zen solasean euskal brigadarekin. Agintari israeldarrek leporatu zioten Rehavam Zeevi hiltzeko atentatua antolatu izana -Zeevi, Sharonen Gobernuko Turismo Ministroa, arrazista eta ultraeskuindar ezaguna, palestinarren kanporatze masiboaren aldekoa zen; Ghandi deitzen zioten, baina ez beraren filosofiagatik, baizik eta bakezale indiar horrekin zuen antzekotasun fisikoagatik-. Palestinako Aginte Nazionalak Saadat eta beraren bi alderdikide atxilotu zituen, Yaser Arafatek berak aginduta, 2002ko urtarrilaren 15ean. Ramalako presidentzia-etxean espetxeratu zituzten.*

*2002ko martxoaren 29an, Armada israeldarrak Arafaten presidentzia-jauregia inguratu zuen, eta Arafat deportatzeko mehatxu egin zuen PANek ez bazituen espetxeratzeko PAHFko buruzagiak.*

*Apirilaren 27an, Armada israeldarrak setiatutako presidentzia-lokaletan bilduta, auzitegi militar palestinar batek espetxera kondenatu zituen PAHFko lau militante, Zeeviren heriotzagatik. 2002ko maiatzaren 1ean, Jerikoko presondegian sartu zituzten zigorra betetzeko. Elkarrizketa hau egin zenean, Palestinako Aginte Nazionalak kudeatzen zuen zentro batean zeuden, soldadu britainiar eta estatubatuarrek kontrolatuta. Espetxeratu zituztenean, Armada israeldarrak bukatutzat eman zuen Mukatako setioa.*

*Azpitarratu behar da Palestinako Justizia Auzitegi Gorenak Saadat askatzeko agindua eman zuela 2005eko ekainaren 3an. Hala eta guztiz ere, Saadatek espetxean jarraitzen du gaur egun. 2006ko hasieran Hamasek hauteskunde palestinarrak irabazi zituenean, Israelgo hauteskunde-kanpaina bete-betean ari zela, armada sionistak Jerikoko espetxea indarrez hartu eta Ahmed Saadat eta han zeuden gainerako preso politikoak bahitu zituen.*

*Horrek argi eta garbi hautsi zuen Palestinako Aginte Nazionalarekin hitzartutakoa, nazioarteko legedia berriz ere urratzeaz gain; bada, ekintza hori justifikatu nahirik, gobernu sionistak esan zuen bazegoela “arrisku handia” Saadat aske geratzeko, gobernu palestinar berriaren eskutik. Espetxea kontrolatzen zuten soldadu britainiar eta estatubatuarrek handik alde egin zuten armada israeldarrak eraso hasi baino hogeita minutu lehenago; horrek agerian uzten du bazekitela zer gertatuko zen eta ez zutela fitsik ere egin eraso eragozteko. Gaur egun, Saadat eta beraren burkideak Israelen daude espetxeratuta.*



### **Zein da PAHFren estrategia 2006ko urtarrilaren hauteskundera begira?**

PAHFk parte hartuko du hauteskundeetan programa demokratiko bat<sup>20</sup> bermatzeko, Al Fatahen eta erakunde islamiarren programetatik bereiztuta. Gure helburua ezkerreko fronte bat eratzea da. Hori ezinezkoa bada, baina, ez dugu inolako beldurrik hauteskundeetara bakarrik joateko, geure programa politikoa eta geure oinarri soziala baditugulako.

PAHFrentzat garrantzitsuagoa da Programa Demokratiko Nazional bat lortzea Parlamentuan jarleku kopuru jakin bat lortzea baino. Hori bai, PAHFk helburu logiko batez parte hartuko du hauteskundeetan, alegia, etorkizuneko Parlamentu palestinarrean presentzia izateko helburuarekin. Dena dela, azpimarratu nahi dugu ez dugula "amesten" hauteskundera, zeren herri erakunde bat baikara, kalean bertan borrokatzen dena, jendearekin batera. Hauteskundera ez dute balio gure helburu guztiak lortzeko; bide bat besterik ez dira, herri borroka zabalago baten testuinguruan sartuta. Hauteskundeetan parte hartuko dugu PANen baitan aldaketa lortzeko bide demokratiko bakarra direlako; bestela, gerra zibilera abiatuko ginateke, eta horixe da, hain zuzen ere, israeldarrek eta iparamerikarrek nahi dutena. Baina herri palestinarrek ez die plazer hori emango.

### **Zure iritziz, zergatik izan dute horrenbesteko gorakada alderdi eta erakunde islamiarrek Palestinan, azken urteotan?**

Badira zenbait arrazoi horretarako. Alde batetik, islamismoak gero eta garrantzi handiago hartu du mundu osoan azken bi hamarkadotan. Mugimendu islamiarrek sare antolatu bat dute mundu arabiarren maila guztietan, eta, hala, Hamasek, Jihad Islamiarrak eta beste mugimendu batzuek laguntza finantzarioa eta bestelako laguntzak jasotzen dituzte beste eskualde eta herri batzuetatik. Era horretan, baliabide ekonomiko mardulak dituzte.

Horrez gain, Hamasek eta lehenengo Intifadan sortu ziren beste erakunde batzuek borrokan jarraitu zuten Intifadaren ostean, eta horrek sinesgarritasuna eman zien herri sektore handi batzuen aurrean. Eta PAN ustelkeriaren minbiziak jota dago ia maila guztietan. Horri gehitu behar zaio erregimen "komunistek" mundu osoan izan duten gainbehera, zeren horrek ekarri zituen erreferenteak galdu baitira, mundu arabiarreko alderdi ezkertiarrek ere ukituz.

### **Edonola ere, islamismoa ez da etsaia gaur egun, ezta?**

PAHFk eta Hamasek gauza batzuk egiten ditugu elkarrekin, une konkretuetan, biok helburu berbera dugulako, hots, Palestina historiko osoa (Gaza, Zisjordia eta gaur egun Israelgo Estatuak hartzen duen lurraldea) barne hartzen duen Estatu palestinar burujabe bakar bat eratzea; gure egitasmo sozialak, aldiz, guztiz desberdinak dira. Horren arrazoiak da mugimendu eta teoria islamiarrek ez dietela erantzunik ematen arazo sozial batzuei: ekonomikoki, islamismoaren aukera kapitalismoa da. Gainera, ez du konponbiderik eskaintzen beste arazo batzuentzat: adibidez, horra hor emakumeek herri islamiar batzuetan pairatzen duten zapalketa; gisa berean, ez die erantzuten gutxiengo nazionalen errealitatei. Beraz, PAHFrentzat islamismoa ez da irtenbidea; beste alde batetik, une honetan eta Palestinan, elkarrekin borrokatu behar dugu ustelkeriaren aurka. Hamasekin eta bere moduko talde islamiar batzuekin gutxiengo akordioak lortzea positiboa izango litzateke Palestinan, baldin eta oinarri demokratikoen gainean egiten bada.

<sup>(20)</sup> Palestinako 2006ko urtarrilaren legegintza-hauteskundeetan PAHFk aurkeztu zuen programa herri palestinarrek pairatzen duen okupazioaren errealitateari lotuta egon zen. PAHFk "Nazioarteko Konferentzia bat antolatzea eta egitea proposatu zuen, Israelgo Estatuak NBEren ebazpenak betetzera behartzeko, eta, halaber, Hagako Nazioarteko Cortearen epaia berehala bete dadin exijitzeko, zeren epai horrek legez kanpotzat jo baituzten Israelgo Estatuak Herri Palestinarren kontra erakitzen ari den Apartheidaren Harresia, eta baita kolonia sionistak ere.

Frontearen iritziz, okupazioarekin zerikusia duen programa "herri palestinarrek ezarri behar du, eta ez Israeliek, Estatu Batuek edo Europar Batasunak, orain arte gertatu izan den bezala: Errepide Mapa horren adibide bat besterik ez da". Horregatik, PAHFk Osloko eta Genevako Akordioak eta Errepide Mapa gainditzearen aldeko apustua egin du, "horietan guztietan Israelgo Estatuaren ikuspegiak eta helburuak soilik islatzen direlako, ez herri palestinarrenak". Laburbilduz, "palestinarrek bakarrik erabaki dezaketela beren etorkizunaren inguruan".

PAHFren programa sozialari dagokionez, "benetan demokratikoa den sistema bat eratzea proposatzen dugu, Palestinako Aginte Nazionalen gaur egun errotuta dagoen ustelkeria ezabatzeko. Alde horretatik, uste dugu premiazkoa dela hiru botereak (legegilea, exekutiboa eta judiziala) lehenbailehen bereiztea; halaber, kargu eta lanpostu publikoak espezializazioa eta gaitasuna duen jendearen esku utzi behar dira, hau da, ez dira nepotismo politikoaren bidez asigatu behar".

Hainbat neurri planteatzen dituzte gazteriaren, haurren, emakumeen eta nagusien eskubideak bermatzeko, eta baita, oro har, langileen eskubideak ere bermatzeko.

Prestakuntzaren alorrean, oso garrantzitsutzat jotzen dute "preso politiko palestinarren kolektiboaren eta martirien senideen Giza Eskubideak errespetatzea, eta baita kultura palestinarra bultzatzea ere. Azpimarratu behar da gobernu israeldar guztiek genozidio kultural larria gauzatu dutela, gure kultura suntsitu nahirik, hainbestearino non hitz eta izen palestinarrek ezabatu dituzten hainbat herritan, gure oroimen historikoa desagerrarazteko".

## **Zein da PAHFren jarrera Estatu palestinar bat 1967an okupatutako lurraldeetan soilik sortzeko aukeraren aurrean?**

Bi Estatu hipotetiko bi herrirentzat (palestinarra eta israeldarra) sortzea irtenbide ona izan liteke, baina iragankorra edo aldi baterakoa izan beharko luke, ez denbora luzerako, ez lukeelako gatazka behin betiko konponduko. Izan ere, gatazkak bere horretan iraungo luke, estalita. 48an okupatutako lurraldeetan (gaur egungo Israel) bizi diren palestinarrek borrokatzen jarraituko lukete, bi Estatu konponbideak ez lukeelako itzulera-eskubidea bermatuko 1948an okupatutako lurraldeetatik ihes egindako pertsonentzat.

PAHFk uste du behin betiko konponbide bakarra egon daitekeela: Estatu demokratiko bakarra sortzea Palestina historiko osoan (Gaza, Zisjordania eta gaur egun Israelgo Estatu den lurraldea); bertan, hiritar guztiek berdintasunez izango lituzkete bermatuta beren eskubide zibil eta politikoak. Eta hori gizabanako bakoitzaren joera erlijiosoa zeinahi delarik ere, sinestuna izanez gero. Hori bake proiektua da, ez gerra proiektua.

## **Ez dirudi proposamen horrek aldeko askorik lortuko duenik Israelgo agintarien artean, zeren beti oso arduratuta egoten baitira gehiago judua bermatzeaz.**

Badakigu okupatzaile israeldarrak ez duela erraz onartuko. Horregatik, beharrezkoa da NBEk herri palestinarren itzulera-eskubidea defendatu dezala, Hegoafrikan egin zuen bezala; beharrezkoa da, halaber, hauteskunde orokor demokratikoak egitea Palestina historiko osoan, NBEk antolatuta. Horixe da modu bakarra israeldarrek eta palestinarrek eskubide berdinak izan ditzaten. Palestina zatikatzen duten konponbideek ez dute bake iraunkorrik ekarriko. Lehen esan dudan moduan, horrek ez du esan nahi Gazan eta Zisjordanian Estatu bat sortzearen kontra gaudenik, baina uste dugu hori konponbide iragankorra dela, azkeneko konponbide demokratikoaren bidean. Iheslarien itzulera-eskubidea da gakoa, bi Estatutik Estatu bakarrera pasatzeko urratsa, zeren horrek herri palestinarren eskubide historikoen aitortza ekarriko bailuke berekin.

## **Gazako Eskualdea aipatu duzu. Zer irakurketa politiko egiten du PAHFk Israel hortik erretiratu izanaz?**

Lehenik eta behin, zehaztu beharra dago Israel ez dela "Gazatik erretiratu", baizik eta Gazako kolonietatik, zeren Israelgo Estatuak Gaza kontrolatzen jarraitzen baitu. Hala, Gaza espetxe handi bat da gaur egun. Israelek Gazako airea, ura eta itsasoa kontrolatzen ditu, eta baita han bizi diren palestinarren mugimenduak ere. Gainera, kolono asko Zisjordania eta Jerusalemgo kolonietan finkatu dira. Hori esanda, uste dugu Israelgo Estatu Gazako kolonietatik erretiratu izana garaipen bat dela. Ez da gertatu Ariel Sharonek nahi izan duelako, alde egitera beharko dugulako baizik. Garaipen hau borrokaren emaitza da. Geuk diogu: "gaur Gaza da, bihar Jerusalem izango da". Egia da Ariel Sharonek galdu egin dituela Gazako kolonia juduak, baina herri palestinarrek garesti ordaindu du erretiratze hori. Ez gatoz bat Estatu Batuek, Errusiak eta Europar Batasunak egin zuten irakurketarekin, "erretiratzea bakeranzko urrats handia dela" esan baitzuten. Izan ere, kontua da Israelek aspalditik alde egin beharko zukeela Gaza eta Zisjordaniatik, eta oraingoz ez du horrelakorik egin.

## **Zer egin dezakegu munduko gainerako herritako jendeak herri palestinarren borrokari laguntzeko?**

Askapen borroka guztien konponbidea munduan nagusi den sistema ekonomiko eta politikoa aldatzea da, hots, kapitalismoa ezabatzea. Gure iritziz, horrek esan nahi du nazioarteko mugimendu bat eratu behar dugula, mundu osoko herri eta jende zapaldua elkartuta. "Nazioarteko Zentral Nagusi" bat edo horrelako zerbait behar dugu, inperialismoaren kontrako nazioarteko iraultza gidatzeko, zeren inperialismoa ere bada nazioarteko fenomeno bat. Inperialismoak proiektu bakarra duen bezala, ezkerrekook ere proiektu komun bat behar dugu nazioarteko mailan. Herri palestinarren borrokari laguntzeko modurik onena norbera bere herrian eta bere errealtatetik borrokatzea da, herri zapalduen askatasunaren alde eta sozialismoaren alde.

Ildo horretatik, azpimarratu nahi dugu Palestinatik geure elkartasuna adierazten diogula euskal herriari, independentziaren eta sozialismoaren alde daraman borrokarekin bat eginez.



**AL FATAH:** 1959an sortutako alderdia, hasieran joera programatiko sozialdemokrata zuena. Beraren buruzagi historikoa Yasser Arafat izan da, eta gaur egun Abu Mazen da. PAEren erakunde nagusia da, eta PANen agintaritza izan du bere eskuetan, modu eztabaidaezinean, Palestinako azken legegintza-hauteskundeak egin diren arte. Azken urteotan, beraren goi kargu gehienei ustelkeria leporatu zaie, eta arrazoi horregatik -gehienbat- galdu zituen 2006ko urtarrilean egindako hauteskundeak. Gaur egun, Al Fataharen barnean zenbait jarrera elkartzen dira. Beraren beso armatua Al Aqsako Martirien Brigadak dira, eta adar horrek behin baino gehiagotan kritikatu du Al Fataharen oraingo buruzagitza.

**P.A.N.:** Palestinako Aginte Nazionala. Gobernu Palestinarra. Beraren presidentea Yasser Arafat izan zen, eta berau hil egin zenez geroztik Abu Mazenek hartu du kargua.

**ARABIARRA:** Jatorriz Arabiakoa den pertsona -Arabia Asiako hego-mendebaldeko eta Afrikako iparraldeko penintsula bat da-, eta, hedaturaz, hizkuntza semitiko hori hitz egiten duen pertsona. Gaur egun, kontzeptu horrek 240 milioi pertsona inguru hartzen ditu barne, herri hauetan -besteak beste: Saudi Arabia, Aljeria, Bahrein, Egipto, Irak, Jordania, Libia, Maroko, Mendebaldeko Sahara, Tunisia, Siria, Yemen, eta abar.

**PAFD:** Palestina Askatzeko Fronte Demokratikoa. Ezker palestinarraren erakundea eta PAEko partaidea. PAHFtik bereiztutako talde bat da, 1969an sortua. Bi Estatuaren konponbidearen aldekoa da.

**PAHF:** Palestina Askatzeko Herri Frontea. Ezker palestinarraren erakunde nagusia; orientazio marxista eta nazionalista arabiarra du. George Habashek sortu zuen, 1967an. PAEko partaidea da, eta beraren Idazkari Nagusia Ahmed Saadat da, gaur egun Israelen espetxeratua. 80eko hamarkadaren erdira arte bigarren indar palestinarra zen, ordezkaritza mailaren aldetik. Beraren adar armatua Abu Ali Mustapha brigadak dira; izen horrek aurreko Idazkari Nagusia omentzen du, israeldarrek hil baitzuten 2001ean.

**HAMAS:** Erresistentziako Mugimendu Islamiarraren akronimoa, "gogo beroa" esan nahi duena. 1987an sortutako mugimendu politiko eta militar bat da, Palestina musulmana defendatzen duena. Bere jatorria "Anaia Musulmanak" mugimenduan du. Beraren sortzaile eta buruzagi historikoetako bat Ahmed Yassin jekea izan zen, Israelek hila. HAMAS ez da PAEko kidea, eta 2006ko urtarrileko hauteskundeak irabazi zituen.

Faktore erlijiosoez gain, sendo errotu izanaren arrazoi bat beraren gizarte ongizateko sare eraginkorra da, hainbat alorretan aritzen baita (hezkuntza, osasuna,...). Beraren adar armatua Ezzedim al Qassem Brigadak dira; izen hori okupazio britainiarraren aurka 30eko hamarkadan matxinatu zen irakasle siriar batena da.

**HEBREARRA:** Palestinan antzina bizi izan ziren herri ugarietako bat; hedaturaz, hebraieraz hitz egiten duten pertsonen ere ematen zaie -hizkuntza horrek jatorri semitikoa du, arabierak bezala-.

**ISRAELDARRA:** Izen hau erabiltzen da Israel deitzen zaion Estatuan bizi eta nazionalitate israeldarra duten pertsonak izendatzeko, bai 48ko lurraldean daudenak eta bai Zisjordaniako eta Golango Gainetako kolonietan daudenak. Azpimarratu behar da Israelgo biztanleriaren %20k jatorri arabiarra duela, beduinoak barne sartuta. Gainerako biztanleak, gehienbat erlijio judukoak, azken mendean finkatu dira lur horietan edo horien ondorengoak dira. Jatorri arabiarra duten biztanleak (arabiar-israeldar deitzen zaie) murriztuta dituzte eskubide zibil eta politiko batzuk, Israelgo Estatuaren barnean (ikus 8. kapitulua: borrokak jarraitzen du 48ko lurraldeetan eta Siriako Golango Gainetan).

**JUDUA:** Erlijio judua duen pertsona, edo jatorri etniko judua duena, fededuna ez izan arren (Karl Marx da horren adibide garbi bat). Batzuk Israelgo Estatu sionistan bizi dira, baina beste asko munduko beste eremu batzuetan bizi dira, batez ere Europan eta Amerikan. Pertsona judu guztiak ez dira sionistak. Aitzitik, pertsona judu batzuk sionismoaren proiektu politikoaren kontrakoak dira. Beraz, beharrezkoa da sionismoaren proiektu politiko eta erlijio judua bereiztea, kontzeptu guztiz desberdinak direlako. Hala, adibidez, Israelen badira gaur egun erakunde batzuk, juduez osatuta egon arren -kide guztiak edo gehienak juduak dira- sionistak ez direnak, hala nola "New Profile", "Alternative Information Center (AIC)" "Anarchists Against the Wall" ... Oso aktiboak dira eta egiten duten lana zinez goraiatzekoa da. Dena dela, eurek diotenez, guztira ez dute 500 partaide baino gehiago. Horrez gain, Israeldik kanpo ere badira erakunde judu antisionistak, hala nola "Jews Against Zionism" edo "True Torah". Erakunde judu antisionistek salatzen dute sionismoa inperialismo arrazista mota bat dela; diotenez, judaismoa eta sionismoa kontzeptu desberdinak dira, eta baita kontrajarriak ere.

**MUSULMANA:** Erlijio musulmana duen pertsona, hau da Islamen sinesten duen pertsona. Palestinar gehienek erlijioa bada ere, palestinar guztiak ez dira musulmanak. Hala, ehuneko esanguratsu batek erlijio kristaua du, batez ere Belen eta Nazarethen, eta palestinarren sektore batzuk laikoak dira. Arabiar guztiak ez dira musulmanak, eta badira milioika musulman Indonesian, Bosnian, Indian eta arabiarrek ez diren beste herri askotan.

**PAE.** Palestina Askatzeko Erakundea. Alderdi palestinar batzuen batasuna da. 1964an sortu zen, eta beraren buruzagia Yasser Arafat izan da 1969tik aurrera, hil egin arte. Alderdi islamiarrak -Hamis eta Jihad Islamiarra- ez dira PAEko partaideak, baina bai Al Fatah, PAHF eta PAFD, beste batzuen artean. Liga Arabiarrak eta NBEk onartu zuten herri palestinarren ordezkari legitimo bezala.

**PALESTINARRA:** Jatorriz Palestina historikokoa den pertsona. Gazan eta Zisjordanian bizi direnez gain, termino horrek 48ko lurraldearen mugen barnean bizi diren pertsonak ere hartzen ditu barne, hau da, gaur egungo Israelgo Estatuan bizi diren palestinarrek, batez ere Nazareth eta Haifa eskualdeetan. Azpimarratu behar da, dena dela, Negeveko basamortuan bizi diren beduinoak eta Golgango Gainetako zati okupatuan bizi diren siriarrak arabiarrek direla, baina ez palestinarrek.

**SEMITA:** Noe-ren Sem semearen ondorengoa. Semengandik datozela dioten herriak barne hartzen dituen familia etniko eta linguistikoa izendatzen du, alegia, arameera, arabiera, asiriera, kaldeera, hebraiera eta siriakoa hitz egin zuten eta/edo hitz egiten duten herriak. Beraz, guztiz okerra da "anti-semita" deitzea "antisionista" den pertsonari, Israelgo Estaturen gaurko politika sionistaren aurkakoa izategatik. Oso kontzeptu desberdinak dira.

**SIONISMOA:** Erlijio judua duten eta munduan sakabanatuta dauden pertsonentzako Estatu propio bat, entitate politiko-administratibo bat, sortzea bilatzen duen doktrina politiko. Theodor Herzl izan da beraren ideologo nagusia. Sionismoaren lema ezagunena hau da: "herririk gabeko lurralde bat lurralderik gabeko herri batentzat" (lur prometatua deitzen diotena da). Balizko kokapen batzuk aztertu ondoren, Estatu Palestina historikoan eratu zen, eta beraren sorrera da herri palestinarra eta ingurune horretako beste herri batzuk sionisten kontra jartzen duen gatazkaren sorburua (ikus 1. kapitulua: *Gainbegiratu historiko laburra*). Sionismoaren aterpean hainbat joera politiko biltzen dira. Garrantzitsua da azpimarratzea pertsona judu guztiak ez direla sionistak. Izan ere, munduan badira sionismoaren kontra publikoki agertzen diren pertsona juduak, nahiz eta israeldar gehienak sionistak diren, ñabardurak ñabardura.

**JIHAD ISLAMIARRA:** Izaera islamiarra duen mugimendu amatua, 80eko hamarkadaren hasiera sortua. Palestina musulmanaren aldekoa da, eta bere estrategia borroka armatuan oinarritzen du ia soilik. Ez da PAEko kidea, eta ez zuen parte hartu 2006ko urtarrilean egindako legegintza-hauteskundeetan. Beraren ospea gorabehera, gizartean duen errotze maila ez da dirudien bezain handia.

**BIBLIOGRAFIA**

- **Daniel Jacobs:** "Israel y Palestina" (Guía de viajes). Ediciones B, S.A., 1999.
- **Edward W. Said:** "Nuevas crónicas palestinas. El fin del proceso de paz (1995-2002)". Ed. Mondadori-Debolsillo, 2003ko apirila.
- **Edward W. Said:** "Gaza y Jericó. Pax americana". Ed. Txalaparta, 1995.
- **Edward W. Said:** "Palestina. Paz sin territorios". Ed. Txalaparta.
- **Iosu Perales Arretxe:** "El perfume de Palestina". Gakoa Liburuak, 2003
- **Joe Sacco:** "Palestina: En la franja de Gaza" (Cómico). Ed. Planeta DeAgostini, 2004ko maiatza (2. Edizioa)
- **Juanma Sarasola Murgia, "Xaun":** "Olibondoetatik apartheid hesira (Palestinako gatazka, okupazioa eta garbiketa etnikoa)". Arbizuko Udala-Askapena, 2006ko ekainean.
- **Komite Internazionalistak - Palestinarekin Elkartasuna:** Agenda 2007
- **Majed Nassar/Nassar Ibrahim:** "La Intifada palestina. Grita libertad". Ed. Kalegorria-Liburuak, 2003ko maiatza.
- **Ralph Schoenman:** "Historia oculta del sionismo". T.G.A., S.L. Barcelona, 2002
- **VVAA:** "Palestina: Tierra, agua, fuego". Ed. Iepala, 2003
- **VVAA:** "Okupazio eta erresistentzia" (Buletina). Ed. Gite-Ipes, 2006ko urrian.

## **ORAIN ARTE ARGITARATURIKOAK**

1. Klase borroka Europar Batasun berrian: eraikuntza europarrerako estrategia sindikala.  
2004
2. Euskal fiskalitatearen azterketa.  
2004
3. Gizonezkoek emakumezkoek baino %36 gehiago kobratzen dute.  
2005
4. Egungo europako itun konstituzionalari EZ.  
2005
5. Jai egunak bizi egunak. Igande eta jaiegunetan itxita.  
2005
6. Enpleguari buruzko txostena. 2004 urtea.  
2005
7. Bolkestein mehatxua.  
2006
8. Elkarrizketa soziala, negoziazio kolektiboa eta generoa.  
2006

